

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko otsailaren 25a

V. urtea • 189. zenbakia • DOAN BANATZEKO



KULTURA

II. Euskal Film Laburren Zirkuitua gurean /15



ANAJE NARBAIZA / '18/98+...' EKIMENA

"Taldea sortu da 18/98 sumarioak ordezkatzan duen basakeriari aurrea hartzeko" /8

Goienka2a

'Medikuak esan dit minbizia dudala' liburua, plazan

ASTEKO GAIA: URTE ASKOAN ZABALIK EGON DIRA

Denda txikien orainaz eta etorkizunaz

Debagoieneko denda txiki asko hamarkada askoan egon dira zabalik; badira mendea bete edo betetzear dauden batzuk ere. Herrietako bizimodua eta ohiturak aldatzen joan diren neurrian egokituz joan dira, eta tartean herriko zati garrantzitsu bilakatu. Pasarte eta anekdota askoren lekuko izan dira.

Mota horretako lau dendako ugazabekin egon da GOIENKARIA eta euren inpresioak batu ditu: denda txikien egoeraz eta etorkizunaz, merkataritza-gune handien lehiaz, denden historia...

Dendariak esaten dute euren komertzioak zabalik irautea dela euren nahia. /2-3




AMAGOIA LASAGABASTER

Ibarrean %17k babestu dute Europako Ituna

Inoizko abstentziorik handiena izan da Europako Itunaren erreferendumean (%63). Bestalde, botoa ematera joan zirenen artean ezetza nagusitu zen, eta Ituna babestu zuten botoa emateko aukera zutenen %17k bakarrik. /4

ABSTENTZIOA %63



ZURI %1 BAI %17 EZ %19

Hego Amerika eta Ertamerikatik gurera

Mundukide Fundazioak asteen aurkeztu du truke programa. Garapen bidean dauden herrialdeekin esperientziak trukatzeko da programaren asmoa. Horretarako, Hego Amerikako eta Ertamerikako hainbat lagun ibarrean izango dira. Lankidetzan oinarritutako harremanak bultzatzen ditu truke programak. Brasildik, Mexikotik, Nikaragutatik, Kubatik, Dominikar Errepublikatik, Argentinatik eta Hondurastik etorri dira ordezkariak ibarrera, eta martxoaren 18ra bitartean izango dira gurean. Haiekin jardungo dute egunotan HUHEZI fakultateko ikasleek. Hemengo hainbat kooperatiba eta erakunde bisitatuko dituzte. /4

MERKEALDIA AZKEN ERREMATEA

KIROL-MODAN, OINETAKOETAN, ARROPETAN; MENDI, IGERIKETA ETA AEROBIC-eko ARTIKULUETAN; KANTXAKO KIROLETAN, OSAGARRIETAN, ETAB.

%50 ERAINO

MARTXOAREN 6RA ARTE

SPORTLAND FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE Garibai Etorbidea, 2-6

KIROLA ZEURE ESKURA

ASTE SANTUA

ANDORRA (PAS DE LA CASA) "GRAND VALIRA"

Martxoaren 24tik 28ra

- Lake Placid apartamentuetan egonaldia (4/6 pertsona)
- 5 eguneko forfaiata
- Asegurua
- Autobusa Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik

365 euro pertsonako

Eskaintza gehiago...
ARRASATE BIDAIAK
 Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
 Tel.: 943 71 25 30 Faxa.: 943 79 74 45
 E-posta.: d4051@marsans.es

Arrasate Bidaiak BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA


ELGETA

Saihesbideko lehenengo harria ipini dute gaur

Gaur goizean ipini dute saihesbideko lehenengo harria Elorriorako bidean, kiroldegi ondoran. Ekitaldian, Udaleko ordezkariak gain, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri ahaldu nagusia egon da. Elorrio eta Arrasate elkartuko ditu saihesbideak. Lehen zatia bost hilabeteko epean amaitu beharko dute. /7

Ateak zabalik, etorkizunean ere

- Belaunaldi askotan jardunean egon dira denda txiki asko, eta hala jarraitu nahi dute
- Gure herrietako protagonistetako bat eta egunerokotasunaren lekuko dira dendok



LEIRE KORTABARRIA

Gure herrietako historia eta bizitza izenez josita dago; kanpokoek ezagutzen dute herri bat historiako izen handiengatik, erakunde izenengatik ere; baina herriaren barne-historian, esanguratsuagoak izaten dira izen xumeagoak, familienak, edo horiek sortu dituzten dendak. Debagoienean, oraindik badago herritarrek, horien gurasoek eta baita aitona-amonek ere ezagutu dituzten dendak. Askok gaingitu dute mende erdia; batzuk mendeurren ospatu edo ospatzear daude, eta Gipuzkoako bigarren denda zaharrena ere Debagoienean dugu, 135 urterekin.

Komertzio horiek badituzte antzekotasun asko: gehienetan, zabaldu zuen familia berberak jarraitzen du jardunean; berriak badituzte ere, lehengo lekuan edo handik oso gertu daude orain ere; eta negozioa, funtsean, jatorrizko berbera da, garai berrietara egokituta, hori bai.

HANDIEN LEHIA

Ugazaben nahia da negozioaren ateak zabalik edukitzea luzarotan. Alde batetik, horixe da euren bizibidea; eta, bestetik, esaten dute herriek bizitasuna eta nortasuna galduko luketela denda hauek itxiko balituzte.

Hala ere, komertzio txikien egoera ez da behar bezain lasaia, merkataritza-gune handien lehia-ekin eta jaiegunetan zabaltzea arautuko duen lege berriarekin. Aho batez esaten digute horrek guztiak kalte egin diela: "beti igartzen da saltoki handien lehia, kalean ere jende gutxiago dabilako"; "zapatuetan, batez ere, jende gutxiago etortzen da"; "erosteko leku gehiago dago,

horregatik datoz bezero gutxiago"... Horiek dira dendarien komentario sarrienak.

Alde, ordea, urte askotako tradizioa dute, eta herritarren konfiantza: "Gazteak kanpora joaten dira gehiago, baina jende nagusiagoak etortzen jarraitzen du", diote; adibidez, Oñatiko Arregi bazarrean, eta hau gaineratzen dute: "Guk arreta ona, konfiantza eta familiako tratua ematen dugu. Produktuak uzten ditugu probatzeko, itzultzeko aukera dago... Horrelako aukerarik ez dago merkataritza-gune handietan".

Jaiegunetan zabaltzea begi txarrez ikusten dute (Jaurlari-tzak joan den astean arautu du 400 m²-tik gorako komertzioek urtean zortzi jaiegunetan zabal dezaketela). Era berean, ibarreko komunikazio defizitaz kezka da nor edo nor: "Antzuolatik jende asko etortzen zen, eta harako bidea moztu zutenetik, gutxiago etortzen da", dio Patxi Berraondo merkataria bergararrak.

HISTORIA GOGORARAZI

Saltoki soil izateaz gain, duten ibilbide luzearengatik, hizki txiki idazten den historiaren lekuko ere badira denda horiek. Izan ere, sasoi bateko lanbide tipikoak zeintzuk ziren gogorarazten digute: jendeak zein produktu mota erosten zuen, zer zegoen aukeran jateko... Historiako pasarteak ere bizi izan dituzte: adibidez, Oñatiko Arregi bazarra II. Gerra Karlistaren bueltan zabaldu zuten, eta Espainiakoan, "harrapaketa egin eta hutsik utzi" zuten falangistek.

Kasu batzuetan, dendak eurak dira oroigarriak: Gisasola burdindegian, Bergaran, adibidez, jatorrizko ateak jarraitzen du bisitarien ongietorria egiten.

Ibarreko denda askok badute mende erdia; eta Oñatin dago Gipuzkoako bigarren zaharrena

Dendak ixten badira, herriak bizitasuna galduko lukeela diote dendari txikiak



ARREGI BAZARRA / OÑATI

Gipuzkoako bigarren denda zaharrena Debagoienean dugu. Arregi du izena, baina Juanitosa izenez ezagutzen dute oñatiarrek. Juanito Candau-dap-ek zabaldu zuen 1870 inguruan. Bere zitasunak dira beti Oñatiko Atzeko kalean egon dela eta beti familia berberak izan duela; gaur egun, Pedro Arregik eta Arrate emazteak dute, eta alabek, seigarren belaunaldiak, ere badihardute dagoeneko.

“Eta jarraitzeko asmoarekin!”, dioskute. Oñatin ez ezik, kanpoan ere oso ezaguna izan da denda: “Arrasate, Legazpi, Brinkola... leku guztietatik etortzen ziren erostera”, dioskute. Izan ere, denetarik saltzen zuten: bazarra zen, eta janari latak, jostailuak... ere saltzen zituzten. Egun, ferreteria, etxeko tresneria, dekorazioa, jantzeko osagarriak... mota horretako produktuak saltzen dituzte, batik bat.



UNZUE PENTSUAK / ARETXABAleta

Aitak 80ko hamarkadako elurte handiekin izandako gorabeherak kontatu zizkigun Felix Pagaldai ugazabak: Debagoien osoko baserritarrei produktuak banatzeko pala hartu eta “ia Gasteizeraino” bidea garbitu zuen. Joan den astean ere, elurrari aurre eginez, ibarreko baserrietatik pasatu zen euren furgoneta. Izan ere, 1950ez geroztik, bezero izaten jarraitzen dute ibarreko nekazariak.

Gaur egun, pentsuak, haziak, lanabesak... saltzen ditu Felix Pagaldai. “Hasieran, olio, patatak, ardoa... ere saltzen genituen”, gogoratzen du; baina, funtsean, negozioa gutxi aldatu da. Hori bai, jatorri-jatorrian, 1947an, taberna bezala zabaldu zuen Felixen aitak; baina segituan hasi ziren pentsuak eta bestelako produktuak saltzen. Egun, Felix eta emaztea egoten dira dendan, eta beste lagun bat banatzen.



CEGIAGA MERTZERIA / ARRASATE

Mendea beteko du Cegiaga mertzzeria 2007an, eta ordurako “zer edo zer berezia” prestatzea pentsatu dute Rosarito eta Loli Zeziaga ahizpek. Eurez gain, lau dendarik dihardute.

1907. urtean sortu zuten denda Julian Zeziaga eta Rafaela Lasagabaster senar-emazteek Portaloi inguruan, eta leku berean segitzen du. Orduan, mertzzeria gain, kuku-erlojuak, betaurrekoak... saltzen

zituzten. Gero, ahizpen izebek, Esperanza eta Encarna Zeziagak, hartu zuten. Rosarito eta Loli erretiratzin direnean zer egin ez dute erabaki, izan ere, diotenez, “ez dago familiako inor denda hartzeko”.

Oraingoz, baina, denda hori inguruetako ezagunenatariko bat da “Oñati, Bergara, Aretxabaleta... baita Aramaiotik ere etortzen da oraindik jendea”, dioskute ugazabek.



GISASOLA BURDINDEGIA / BERGARA

Emeterio Gisasola urretxuarrak zabaldu zuen izen bereko denda orain ia 90 urte; Antzuolatik jende asko etortzen zitzaion ere, eta horiek Erratzu izenez ezagutzen dute gehiago. Latorrigilea zen ogibidez Gisasola, eta era horretako negozioa zen jatorrian; gerora, burdindegi egin zuen, eta baita baserriko zein etxerako tresnen salmenta lekua ere. “Ni umea nintzenez oraindik saltzen

ziren baserriko tresna batzuk: segak, igi-taiak...”, gogoratzen du ugazabak, Gisasolaren iloba Patxi Berraondok. Semeak ere badihardu dendan.

Atarian antzematen da denda zaharra dela: “Berritu genuenean esan ziguten jatorriko atea gordetzeko moduan zegoela, eta hortxe dago”, dio Patxik. Eta sarrean, orduko pisu handiko artikuluak sartzeko errailak ere sabaian jarraitzen du.

0000 km
Mondeo
C-Max
Fiesta

Haxe da aukera!

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeke pentsuak
irauteko eginak

**FISIOTERAPIA
KONTSULTA
BERRIA**

Irene
Unzueta

Ordua hartzeko:
San Martin Osasundegia
Ramon M^a Lili 2

943 76 59 39

**Langile okupatuentzako
%100 prestakuntza
finantziatuak**

Informatika
Disenua
Gestioa
Hizkuntzak
Giza baliabideak

AKADEMIA
BASTIDA

Info: 943 79 35 33
formacioncontinua@bastida.es



AMAGIOIA LASAGABASTER

Mundukideko eta HUHEZIKO ordezkariak truke programako partaideekin egin zuten aurkezpena Eskoriatzan.

Mundukide fundazioak otsailean eta martxoan truke programa egingo du

Hego Amerika eta Ertamerikatik bederatzi lagun etorri dira ibarrera

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mundukide fundazioak asteon aurkeztu du truke programa. Garapen bidean dauden herrialdeekin esperientziak trukatzeko da programaren asmoa. Horretarako, Hego Amerikako eta Ertamerikako hainbat lagun ibarrean izango dira.

Mundukide fundazioak otsailean eta martxoan bitartean garatuko du aurten esperientzia komunitarioen truke programa. Seigarren urtez jarri dute abian programa, eta garapen bidean dauden herrialdeekin esperientziak trukatzeko da helburu. Horretarako, Hego Amerikako eta Ertamerikako bederatzi lagun ibarrean izango dira.

Truke programaren bidez, herrialde txiroetan, lan arloan,

elkartasuna bultzatu nahi du Mundukidek. Esperientzia kooperatiboaren baliabide eta ezagutzaz baliatuko dira horretarako.

Lankidetzan oinarritutako harremanak bultzatzen ditu truke programak. "Lankidetzaren eredu bultzatzeko batetik ibarreko kooperatibetan oinarritutako giza esperientzia dago, garapen komunitarioan ekarpenak egiteko garrantzitsua dena. Bestetik,

Herrialde txiroetan, lan arloan, elkartasuna bultzatu nahi dute

etorkizuneko proiektu kooperatibo gizakioia indartzeko, Hirugarren Munduko herrialdeetako esperientzia komunitarioek zer ikasia eta pentsatua ematen dutenez, ezagutu egin behar dira", esan dute Mundukide fundazioek. Horrez gainera, etorkizunerako truke bideak topatu nahi dituzte.

IKASLEEN PARTAIDETZA

Brasildik, Mexikotik, Nikaragutik, Kubatik, Dominikar Errepublikatik, Argentinatik eta Hondurastik etorri dira ordezkariak ibarrera, eta martxoaren 18ra arte izango dira gurean.

Gurera etorritako bederatzi lagunekin jardungo dute egunotan HUHEZI fakultateko ikasleek. Bide batez, gonbidatuek hitzaldiak eta mintegiak eskainiko dizkiete ikasleei.



Osasunean, akordio eta protestak

LAB, UGT eta CCOO sindikatuek akordioa lortu zuten eguaztenean Osakidetzarekin. Horren arabera, 3.000 lanpostu lehiaketara aterako dira. ELA, SATSE eta SME sindikatuek, berriz, Osakidetzaren eskaintzarekin ados ez, eta protestekin jarraitzea erabaki dute. Eguenean, greba egin zuten Eskualde Ospitalean. Protestan diren sindikatuen ustez, arazoak ez dira konponduko gainontzekoekin sinatu duten hitzarmenarekin. /M.A.

Epeletik Hiper Eroskirainoko errepidea zabaldu egingo dute

Lau errail izango dira, bi noranzko bakoitzerako

MARIA AGIRRE

Arrasaten, Hiper Eroski inguruko errepidea zabaltzeko proiektua onartu berri du Diputazioak. Autobideak ekar ditzakeen auto pilaketak ekidin nahi dituzte, lau erraileko errepidea eginda.

Laster irekiko dute Bergara hegoa eta Arrasate bitarteko autobidea, eta Hiper Eroski inguruan zirkulazioa gehitu egingo dela aurreikusita, inguru horretako errepidea handitzea erabaki du Diputazioak. Epele eta Kaskonategi (gaur egungo Hiper Eroski) bitarteko errepidea zabalduko dute. Lau erraileko errepidea izango da, bi noranzko bakoitzean. Hala, tarte horretan izan daitezkeen auto pilaketak ekidin nahi dira.

Proiektuaren aurrekontua 2,5 milioi euro da, eta sei hilabetean egin nahi dute. Errepide berria egiteko, inguruko lursail

batzuk hartzea aurreikusi dute. Bergarako noranzkoan, Import Arrasate eta Roneori kenduko dizkiote lursailak; Arrasateko noranzkoan, berriz, Iberdrola, Epele galdaragintza eta Esma enpresei, baina baita Garratz eta Zabaleta baserriei ere. Laster hasi nahi dute lanekin; ekainaren hasieran izan daitekeela adierazi dute Diputazioak iturriek. Eta, bestalde, AP-1eko Larreategiko zubiaren inguruan, eguraldiak onera egin bezain laster hasi eta lanak hilabetean bukatuko dituztela esan dute.

Eroski eta Epele bitartean izan daitezkeen auto pilaketak ekidin nahi dituzte

gure bizitzako eskaintzarik onenak



25 urteko ibilbidea. 25 urte zure ametsak egia bihurtzen. Gozatu bizitzaz! Merez duzu!

Aste Santurako eskaintza berezia

Galicia 197€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
Autobusez ibilbidea. 03/23tik 03/28ra (gaua bidaiatzen). 32.778 Pta
Caribe Hotela** / Delfin Azul Hotela**. Mantenu osoa.

Port Aventura hotelen aparteko eskaintza
Apirilaren 17ra arte egindako erreserbatarako eta martxoaren 28tik maiatzaren 19 bitarteko egonaldietarako. Bi helduk ordainduta gelak erreserbatuz gero, haurrek doan (gehienez 4 lagun gelako)..... **2 haur doan***
Apirilaren 1etik 27ra..... **3 gau 2ren prezioan**
*Bi promozioak apirilaren 1etik 17ra bitartean egindako erreserbetarako balio dute. Apirilaren 18tik aurrerako baliozko promozioa 3x2 izango da.

Tenerife 249€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
Apirila. 8 egun-7 gau. Hegazkina Bilbotik. Hotela**. Apartamentuak**. 41.430 Pta
Mantenu osoa. **ERREGAIAREN GEHIGARRIA BARNE.**

Paris 229€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
03/23tik 03/28ra (gaua bidaiatzen). Ibis Paris Porte Bercy Hotela**. 38.102 Pta
Gosariak barne. **BISITA PANORAMIKOA BARNE.**

Lisboa 231€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
Autobusez ibilbidea. 03/23tik 03/28ra. (gaua bidaiatzen). 38.435 Pta
Ibis Malhoa Hotela**. Gosariak barne.

EROSKI viajes merezi duzu



www.viajeseroski.es

Kamioien joan-etorria gutxitu nahi da, 'Euskal Y'-ak kamioiak eramanda

Bidaiariak ez ezik, merkantziak ere garraiatuko ditu 'Euskal Y'-ak

MARIA AGIRRE

Jaurlaritzaren arabera, Abiadura Handiko Trenari esker, egunero 1.000 kamioi gutxiago ibiliko dira Irun eta Gasteiz artean. Era berean, erregai gutxiago gastatu, eta ingurumenari mesede egingo zaiola uste dute.

Bidaiariak eta merkantziak garraiatzeko ahalmena izango duen tren du helburu Jaurlaritzak. Eta, hala, gaur egun kamioiz hain beteta diren errepideen onerako izango dela uste dute. Berezi, Gipuzkoan sumatuko da kamioien joan-etorriaren gutxitzea. Irun eta Gasteiz arteko errepidean, egunero 1.000 kamioi gutxiago ibiliko dira. *Euskal Y*-aren inguruko ikerketa egin du Jaurlaritzak, eta hori da ondorio azpimarragarria.

Horretarako, Abiadura Handiko Trenak gehienez 230 km/h-ko abiadura hartuko du, eta gutxienez 90 km/h-koa. Jaurlaritzako ordezkariek Suitzan egon berri dira, merkantziak garraiatzeko tren bertatik bertara eza gutzeko. Era horretan, kamioiak trenetara igo, eta eurentzat egokitutako konboietan joango dira. Eusko Jaurlaritzaren ustez, istripuak gutxitu eta zirkulazioa arintzeaz gain, erregaien kontsumoa jaitsi egingo da, eta ingurumenari mesede egin. 7.100 litro gasolio gutxiago kontsumituko dira egunero, egin dituzten kalkuluen arabera.



AHTri esker, errepidean egunero 1.000 kamioi gutxiago ibiliko direla dio Jaurlaritzak.

GOIERRIN GELTOKIA IZAN DEZAKE

Madrilgo Sustapen Ministerioak egin duen azterlanaren arabera, lau geltoki izango ditu tren sareak: Bilbo, Gasteiz, Irun eta Donostian. Hala ere, beste bi gel-

toki jartzea posible ikusten du Jaurlaritzak. Horietako bat Goierri izango da, Ezkio-Itsason, eta bestea, Durangaldean. Hain justu, MCCk eskatu zuen ibarrek lotura errazteko geltokia jartzea Goierri.

EKONOMIA SUSPERTU EGINGO DA

Ikerketa horren arabera, gainera, Euskadiko ekonomia izugarri suspertuko du *Euskal Y*-ak. Bost urtean 3.300 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusten dute, eta 9.000 lanpostu sortuko dira. Esportazioak ere handituko direla diote.

Goierri, Ezkio-Itsason, geltoki bat jartzea posible ikusten du Jaurlaritzak

Korrika martxoaren 16an pasatuko da ibarretik, arratsaldean eta gauez

Arratsaldean Oñatitik pasatu eta goizaldean iritsiko da Leintz Gatzagara

IRATI AGIRREAZALDEGI

Martxoaren 10ean Orreagan (Nafarroa) abiatu eta martxoaren 20an Bilbon amaituko da Korrika 14. Ibarrean martxoaren 16an, arratsaldean, sartuko da Udantatik eta martxoaren 17an gauean pasatuta Leintz Gatzagara helduko da.

Euskal Herri osoan, bi urtean behin egiten den euskararen aldeko lasterketa da Korrika. Hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskolen zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea du helburu.

Korrika 14 da aurtengo edizioa. Martxoaren 10ean Orreagan (Nafarroa) hasi, hamar egunez, gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du martxoaren 20an Bilbora iristeko. 2.150 kilometro euskararen alde eginda.

Martxoaren 16an	
TOKIA	ORDUA
Udana	15:38:02
Oñati	16:10:32
Bergara	17:46:44
Elgeta	18:41:59
Elorrio	19:16:26
Kanpanzar	20:07:47
Arrasate	21:58:17
Aramaio	22:43:47
Aretxabaleta	23:22:47
Eskoriatza	23:42:17
Leintz Gatzaga	00:14:47

Debagoienetik martxoaren 16an pasatuko da Korrika. Udanan barrena Oñatira iritsiko da lehenengo. Lasterkariak Udana mendatean 15:38an izango direla aurreikusi dute antolatzaileek. Oñatira, berriz, 16:10ean ailegatu dira. Ondoren, Bergarara

abiatuko dira, eta handik Elgeta. Elorriotik pasatuta, Kanpanzar, Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagara, joango dira, eta Landara gero, martxoaren 17ko goizaldean, ibarreko ibilbidea amaituz.

KILOMETROAK SALGAI

Korrika hasi eta amaitu arte, lekukoa pasatzen da esku batetik bestera. Lekukoa eramanez ahal izateko, ordea, kilometroak erosi behar dira. 320 euro balio du bakoitzak eta Debagoieneko Arrasateko AEKn erosi daitezke (943 77 03 69).

Bestalde, norbanakoek ere Korrika laguntzaile egiteko aukera dute. Ibarreko hainbat denda, taberna zein ikastetxetan 12 euro ordaindu eta trukean pin bat eta txartel bat jasoko dituzte. Horrekin deskontuak izango dira Euskal Herriko hainbat denda eta zerbitzutan.

Hautesleen %17k bakarrik babestu dute Europako Ituna

Debagoieneko ezetzkoaren aldekoak nagusitu dira

ENEKO AZKARATE

Inoizko abstentziorik handiena izan da Europako Itunaren erreferendumean. Hain justu ere, %63 izan zen abstentzioa domekako bozketan. Bestalde, botoa ematera joan zirenen artean, ezetza nagusitu zen.

Horiek dira joan zen domekako bozketek Debagoieneko utzi dituzten emaitzetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak, alegia, parte-hartze txikia, itunak gurean jaso duen babes txikia eta ezetzkoaren aldekoen garaipena. Izan ere, Gipuzkoan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Hego Euskal Herrian eta Espainian ez bezala, ezetza nagusitu da gure ibarrean.

Nabarmentzeko da Europako Ituna botoa emateko aukera zutenen %17k bakarrik babestu dutela (8.925 lagunek), hau da,

hamarretik bik ere ez. Hain justu ere, Espainiako Konstituzioak baino babes txikiagoa jaso du Europako Itunak.

Orotara, Debagoieneko ezetz bozkatu dutenak 9.956 lagun izan dira, hau da, baietz bozkatu dutenak baino 1.000 lagun gehiago. Esan behar da, era berean, ibarreko bi herritan ez duela irabazi ezetzak: Arrasaten eta Eskoriatzan. Gainerako beste zazpi herrietan bai. Nabarmentzeko beste datu bat da abstentzioa gurean handiagoa izan dela (%63) Hego Euskal Herrian (%60) baino.

Inoizko abstentzio mailarik handiena gurean (%63); Hego Euskal Herrian baino handiagoa

Erreferendumeko emaitzak Debagoieneko

HERRIA	ABST.	BAI	EZ	ZURIAK
Arrasate	%62,7	3.753 %52,6	3.211 %45,0	171 %2,4
Bergara	%63,0	1.949 %42,7	2.510 %55,0	105 %2,3
Oñati	%65,6	1.332 %43,9	1.649 %54,3	52 %1,7
Aretxabaleta	%64,3	832 %44,7	991 %53,2	38 %2,0
Eskoriatza	%66,3	558 %51,0	503 %45,9	33 %3,0
Antzuola	%55,5	256 %34,1	477 %63,6	17 %2,2
Aramaio	%65,4	126 %29,6	291 %68,4	8 %1,8
Elgeta	%55,0	108 %28,0	271 %70,3	6 %1,5
Leintz Gatzaga	%68,2	11 %16,1	53 %77,9	4 %5,8
Debagoiena	%62,9	8.925 %38,1	9.956 %59,3	434 %2,5

Domekan botoa eman zutenak zoriondu ditu Aralarrek

Gure eskualdean "ezezkoa garaile atera zelako"

DEIANE ARRIETA

Debagoieneko Aralarrek prentsaurrekoa eskaini zuen eguaztenean Europako Itunaren erreferendumearen emaitzen gaineko balorazioa egiteko. Abstentzio handia eta Debagoieneko ezetzko nagusitu izana nabarmendu dituzte.

Bereziki, bozkatzera joan zirenen debagoiendarrak zoriondu nahi izan ditu Aralarrek, "ezezkoa garaile izan delako". Eta, zoriondu, ezetzko nagusitu delako ibarreko herri ia guztietan, Arrasate eta Eskoriatzan izan ezik.

Debagoieneko ezetzko nagusitu izanaren arrazoiatariko bat alderdi politiko, sozial eta sindikalek agertu duten batasuna dela uste du Aralar alderdiak. Europako Itunak porrot egin duela uste dute, "bakarrik hautesleen %25en babesa duelako, eta gure ibarrean, oster, %17".

Parte-hartze txikiaren arrazoiak bi dira, Aralarren ustean: batetik, eraikitzen ari diren Europako ereduak pizten duen interes falta; eta bestetik, baiezkoaren alde egin duten alderdiek jaso duten babes txikia. "Ez da kasualitatea ezeko bozka gehien egon diren lekuetan are eta handiagoa izatea abstentzioa; leku horietan ez da kontua herritarrek duten interes maila baxuagoa izatea, baizik eta baiezkoaren alde egin duten alderdiek erantzun txikia jaso izana", dio Aralarrek. Horren haritik, EAJri hausnarketa egitea eskatu dio Aralarrek.

"Eraikitzen ari diren Europako ereduak pizten duen interes falta da porrotaren arrazoi"

Gutunak

AHTk naturari eragingo liokeena

AHTk naturari txikizio latzak eragingo dizkio, Euskal Herriatik abiatuta handian pasatzeko.

411 kilometro egingo ditu Euskal Herriko lurretan zehar, eta 150 kilometro baino gehiago tuneletan izanik, abiatuta handian pasako da trena. Horrek hiriburuen arteko konexioak azkartuko ditu, eta, Amann-en esanetan, gertu egongo da 2010erako, aurkako inongo erantzunik ametitu gabe. Merkantziak garraiatzeko trena izango dela esaten dute; esan beharra dago munduan, jeneralean, merkantziak ez direla abiada handiarekin mugitzen.

Jasangaitzak izango dira txikizioak, ikaragarriak! Ingurune fisikoan eragina izango duen inpaktua handia izango da. Tartean, tunelak eta zubi erraldoiak eraikiko dituzte, eta, horren ondorioz, lur mugimenduak gertatuko dira. Zaratak gomendatutako nibela gaindituko du askogatik eta zer esanik ez tunelela sartu eta irteterakoan. Baserriak bota egingo dituzte herri batzuetan eta kutsadura ez da txikituko. Hori guztiori eraso latza da.

AHT euskal herritarrei inposatutako proiektua da eta aurrera eramango balute zatitutako eta zementuzko Euskal Herrian biziko ginatke. Badu zentzurik?

IRATXE A.
Aramaio

Gezurra badirudi ere, egia da!

Batzuentzat ezaguna izango da esango dudana, baita izenak ere. Beste batzuek ez duzue ondorengoaren inongo berririk izango. Badakit urte askotan errepikatutako gertaerak direla, beti errepikatzen ditugun aldarrikapenak. Baina min ematen dit egunerokotasun honetara ohitu garela pentsatzeak. Gezurra badirudi ere, egia da ondorengo, irakurri eta ez ahaztu.

Jon Agirre Agiriano preso politikoa aramaioarrak laster 24 urte luze egingo ditu espetxean; 39 urterekin sartu zuten preso. Oso gaixo dago Jon, kolesterola, diabetesaz gain, mokorreko arazo dauka, ibiltzea ezinezkoa eginik; horregatik protesia eta bi ebakuntza beharko lituzke. Bizkarrezurra gaizki, eta horrek oinetako sentimena galtzera eraman du, mina areagotu eta kroniko bihurtu arte. Horrek guztiak, bere osasunaz gain, espetxeko bizimoduan eragina du; inmobilizazioak inkomunikazioa suposatuz. Ezin baitaiteke bisi-

tetara joan, soilik bisetara doa, betiere gurpilezko ahulki baten ez bada. Legeak dio Jon etxean behar duela, eta ez Logroñon, baina zergatik ez da horrela? Agian, ez delako *Jenerala!*

Bautista Barandalla Iriarte preso politikoa etxarriarraren kasua ezin dugu ahaztu. Zaragozan dago, 15 urte daramatza preso eta 2000. urtean ultzera peptidikoa antzeman zioten. Ez zuenez beharrezko asistentzia medikorik jaso, ondorioz ultzeradun kolitisa dauka. Hestelodirik ez, eta bere beharrak gorputzari itsatsirik duen poltsa baten egin behar baititu. Judizialki egin zitekeen guztia egin da eta une honetan bere etxeratzea ez da posible, bide guztiak agortuak daudelako. Baina, hala ere, gaixotasun oso larria izanik eta legez etxean beharko lukeela jakin arren, ez omen da posible. Eta horrela utzi behar al dugu Bautista?

Iñaki De Juana Chaos preso politikoa donostiarrak etxean behar luke 2004ko urriaren 25a ezker, egun hartan bete zuelako bere zigorra oso-osorik. Baina hori ere ez da horrela; Iñaki Algecirasko espetxean dago, noiz irtengo den jakin gabe. Kodigo penal zaharrak onartuko eta epaileek emandako erredentzioek 12 urte batzen zituzten; beraz, gehiengo 30 urteko espetxe zigorra izanik (hori kode penal zahararen arabera, eta hor izan zen epaitua Iñaki), 18 urte preso egon ostean etxean behar zuen. Erredentzioak kendu dizkiote, Auzitegi Nazionaleko 5. salak hori ez dela posible esan arren! Gutxi balitz, abenduan idatzitako bi artikulurengatik, 29 urteko espetxe zigorra eskatzen diote. Ziega zikin baten 18 urtez preso dagoenarentzat, boligrafoz idatzitako bi artikuluk 29 urte balio omen dute, sinestezina!

42 gazte euskaldun, 652 urtera kondenatuak; beraien delitua? Gazte eta abertzalea izatea, besterik ez! Horieta 22 lau urtez egon dira preso epaiketaren zain. Hori da Jarrai, Haika eta Segiko gazteei, Euskal Herriaren alde, esparru desberdinetan lan egitearren, ordainarazi nahi dieten era, espetxeaz!

Beraiek egindako legea betetzen ez duten horiengandik zer espero genezake? Zer-nolako bermea ematen digute horrelako egoerek? Osasun eskubiderik ez! Ikasteko eskubiderik ez! Adierazpen askatasunari ez! Etxetik ahalik eta hurbilen dagoen espetxean egoteko eskubiderik ez! Epaiketa justu baterako eskubideari ez!

Hiru izen bakarrik eman ditut, eta oso egoera larriak aipatu ere. Ba imajinatu, momentuz, Euskal Preso Politikoen Kolektiboa osatzen duten 717 pertsona horietatik zenbat eskubide zapalduak izango diren, horrenbestetan demokrazia, tolerantzia, giza eskubideak... bezalako hitzekin ahoa betetzen zaien horiengandik! Benetako demokrazian biziko bagina, ez lukete hori horrenbeste aldiz errepikatuko!

717 horietako bakoitzari hitza eman goz balio, beraien egoeraz galdetuko balitzaie, zer esan asko izango lukete. Eta

gainera horrela behar du, gatazkaren konponbiderako ezinbesteko Euskal Herriko zatia delako. Beraien eskubideek errespetatuak, bermatuak izan behar dute, beraien izaera politikoa aitortzeaz bat! Eta bien bitartean, Euskal Preso Politikoen Euskal Herriratzea ematea ezinbesteko pausoa da!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

Mendiari errespetua

Joan den asteburuan galduta izan nuen semea, Gorbeian. Zapatu eguerdian galdu zen, eta domeka goizean topatu genuen. Zorionez, hainbat egun ospitalean egin baditu ere, ondo dago. Familiak eta lagunak pasa duguna ez pasatzeko hainbat gomendio eman gura ditut.

Mendira joan gura duenak, herriko mendi taldeek ibilaldi ederrak antolatzen dituzte. Arrasaten Besaide Mendi Elkarteak ibiltzen da horretan, eta eurekin joateko gomendatzen dizuet, denok elkarrekin. Horrekin esan gura dut inoiz ez dela mendira bakarrik joan behar, eta gutxiago eguraldi txarra eta elurra egin badu. Inork ez dezala pentsa natura baino argiagoa denik, edozein momentutan izan dezakegu eta ezustekoren bat. Horrekin batera, jakin mendira zer-nolako arropak eraman behar diren, oso garrantzitsua da hori.

Domekan, lagun asko elkartu ziren semearen bila joateko. Ez dut uste onena denik, semea topatzeko ahaleginetan, beste edozein gal zitekeen eta. Hala ere, zeukaten borondatea ikusita, ez nuen ezer esan. Egindako ahalegina eskertzeko berbak baino ez ditut. Eskerririk asko, Arbolapetan elkartu ziren lagun guztiei; eskerrak, DYA eta Gurutze Gorrikoei, eta baita Gobernuoko Zerbitzu Publikoei ere.

JUAN POZO LOPEZ
Arrasate

Ardiak erasotzen dituzten txakurrak

Urtarrilaren 13an, bost ardi hil zizkidan txakur batek. Bat zaurituta zegoen eta albaiariari deitu nion, baina hilda bota zituen barruan zituen bi bildotsak. Auzo alkateari eta zinegotzi bati esan nien eta salaketa jartzeko aholkatu zidaten. Hurrengo egunean, domekan, jakin nuen auzoko beste baserri batean ere agertu zirela beste ardi bat hilda, bi zaurituta eta hiru desagertuta. Ertzainak argiketa egitera joan zirenean, txakurrek egindako bidea erakutsi nahi izan

nien, baina ez zela beharrezkoa esan zidaten. Bi egunera ikerketaren berri jakiteko deitu nien eta esan zidaten ez zegoela berririk eta txakurren kontua Udalarri dagokion kontua dela. Udaltzaingora eta udal arduradunengana ere joan naiz, baina haiek ere beste batzuen gainean utzi dute erantzukizuna. Bergarako epaitegitik jasotako gutunak ere erantzuleak nortzuk diren jakiteko beste argibide ez dagoela esaten du eta ikerketa judizialik ez dagoenez, gertaera hori bertan behera uzten dutela. Nik, hala ere, gertaera horren berri eman nahi dut. Horretarako, Ertzaintzan jarritako salaketa eta epaitegitik jasotako agiriak banatu ditut auzo eta baserrietan, baita alkatetzan, udaltzaingoa eta Nekazaritza batzordean ere. Gutun honekin ere gertaeraren berri eman nahi dut, zer gertatu den denak jakinaren gainean egoteko. Ardiak larrean lasai ibiltzearen alde eta txakurrak euren larretan sosega daitezten.

BITTOR ERRASTI
Oñati

Etxera!

Gaur O-23 da (gaztelaniaz 23-F); 18/98+... gogoan, Jon Agirre 23+ urte kartzelan.

Azken hilabeteotan, ezaguna egin da gure artean, Jon Agirre etxera Herri Ekimenari esker, bere osasun egoera; mobilizazioen eta hainbat gestioen eraginez, Malagako kartzelatik Logroñokora ekartzea *lortu* dugu; Pozik dago bera, gutxienez, bere eskariei erantzun egoki bat emateko bidean ikusten baititu gauzak; ebakuntza egiteko esperantzak, sendia hurbilago egoteak eta herritarren mobilizazioek kartzelako egoera latza arindu egiten diote eta...

Baina Jonen egiako egoera birgoratu nahi dugu.

Jon jasaten ari dena gizalegearen kontrakoa da, bete-betean.

Jon Agirrek aspaldi egon behar zuen libre, etxean, Euskal Herrian; aspaldi (duela 10+ urte) beteta duelako Espainiako auzitegiek ezarritako kartzela zigorra; aplikagarri zaiolako gaixotasun larriak dituzten presoek dagokien 92. artikulua; kartzelan mantentzen ari direlako, mendeku hartzearen bakar-bakarrik eta, konponbidean sartu nahi bada bizi dugun gatazka, keinuak egiten hasi beharra duelako Espainiako Gobernuak ere. Baina, bitartean, gutxienez, bere osasunaren zaintzak eskatzen dituen gutxienekoak bete ditzatela; onartezina da Espainiako Instituciones Penitenciarias delakoaren utzikeria. Ebakuntza lehen-bailehen; Eta aska dezatela, "lehen baino lehenago". Jon Agirre etxera!

JON AGIRRE ETXERA HERRI EKIMENA
Debagoiena

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ixaso Bereizbar,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zehitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

BERGARA Herriko dendariak haserre, ur kolektoreko lanak direla-eta

Bedelkar dendarien elkar-teak haserre azaldu du herrian egiten ari diren ur kolektoreko lanengatik. Dendarien arabera, ez dira Udalak agindutako epeak betetzen ari, eta lanok komertzioetara galera ekonomikoak ekarri dituzte.


Bedelkarko ordezkarrien ustetan, Udalak ur kolektoreko lanen epeen kontrola egin beharko luke: "Udalaren betebeharrak lanen jarraipena eta kontrola egitea da. Epeak betetzea eta herritarroei informazio garbia helaraztea eskatzen dugu, besterik ez". /E.M.

ARAMAIO Aurrekontua onartu du udalbatzarrak: 1.837.707,80 euro

Nabarmentzekoa da aurtengo iaz baino %36,4 gehiago inbertituko duela Udalak: 652.103,44 euro. Nabarmentzekoa da, baita ere, Udalak ahalegin berezia egin duela kopuru bat gordetzeko Haur Hezkuntzarako. Horren gainean tirabirak izan dira eskolaren eta Udalaren artean. Azkenean, badirudi Udalaren erabakiarekin guztiak geratuko direla pozik. Horren arabera, 120.202,42 euro erabiliko dute eskola ondoan eraikin berria egiteko, 0-2 urteko umeei Haur Hezkuntza zerbitzua emateko. /U.M.

ELGETA Saihesbideko lehenengo harria ipini dute gaur kiroldegi ondoan

Gaur goizean ipini dute saihesbideko lehenengo harria Elorriorako bidean, kiroldegi ondoan. Ekitaldian, udal ordezkariek gain, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri ahaldun nagusia, Javier Zuriarrain Errepide Azpiegiturako diputatua eta Josu Agirrezabalaga Errepide Saileko zuzendaria izan dira. Elorrio eta Arrasate elkartuko ditu saihesbideak. 1.260.276 euroko aurrekontua dute lanek eta lehen zatia bost hilabeteko epean amaitu behar dute Galdiano enpresakoek. /I.A.



ANTZUOLA

Erreka bideratzeko proiektua ikusgai ipini dute udaletxean

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan ipini dute ikusgai erreka bideratzeko proiektua, eta martxoaren 15era arte egongo da jendaurrean. Proiektua Eusko Jaurlaritzako Ur Departamentuak eskatu zuen eta Antzuolako Udalak 2005eko otsailaren 4ko udalbatzarrean onartu. Jendaurrean dagoen epean komenigarritzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izango dira. Herriarendako obra konplexua eta garrantzitsua izanik, planoak osoko bilkuren aretoan ipini dituzte. Planoez gain, proiektua hobeto ulertzeko, irudi birtual sorta bat eta 15 minutuko bideoa ere egongo dira. Erakusketa zabalik egongo da astelehenerdik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 19:00etara; zapatuetan, berriz, 10:00etatik 13:00etara. /I.A.

OÑATI

Natalio Maiztegiri dantza omenaldia egingo diote domekan kiroldegian

Natalio Maiztegiri omenaldia egingo diote domekan kiroldegiko frontoian. Dantza ikuskizuna izango da eta haren lagun eta ikasle ohiek antolatuko dute.

Donostiako, Iruñeko, Bilboko eta Gasteizko dantza akademiak etorriko dira, besteak beste. Guztira Euskal Herri osoko 14 dantza akademiak hartuko dute parte omenaldian. Akademia batzuek ikuskitzen bat baino gehiago presatuko dute domekarako eta dantza ikuskitzen asko eta askotarikoak ikusteko aukera egongo da. "Natalio tangoa asko gustatzen zitzaien, eta tangoa ikusiko dugu domekan, baita sevillan ere, hori ere dantzatzeko zuten eta", dio Manu Cruzek, domekako omenaldia prestatzen ari den Natalioren lagunak. "Duela zortzi urte ezagutu nuen eta ikaragarri ona zen dantzan, edozein musika mota entzun orduko hasten zen gorputza erritmoarekin mugitzen", gogoratzen du.

Manu eta bere emaztea azaroan hasi ziren domekan egingo dioten omenaldia prestatzen: "Entsegu eta dantza ikuskitzen guztietan aipatzen da oraindik haren izena, bai dantzari ona zelako baita pertsona ezin hobea zelako, eta omenaldia egitea erabaki genuen ikasle ohi eta lagunok", dio.

PROIEKZIOAK ETA OROIGARRIAK
Dantza ikuskitzunean batera, Natalioren irudiak proiektatuko dituzte Zubikoako frontoian. Haren gurasoei, plaka bat eta lore sorta bat emango dizkiete. Omenaldia 16:30ean da, domekan, eta doan da. /O.E.

Zertzelada

Euskal Herri osoko 14 dantza akademiak hartuko dute parte omenaldian, eta estilo guztietako dantzak egingo dituzte

ARETXABALETA

Tranbiaren proiektua dago ikusgai udaletxeko ganbaran atzo ezker

Atzo, otsailak 24, aurkeztu zuten tranbiaren gaineko erakusketa Aretxabaletan. Alvaro Amann Garraio sailburua izan zen bertan Arrixu Oliden alkatearekin eta Xabier Sarasua zinegotziarekin batera. Hala, tranbiak Aretxabaletan izango duen ibilbidearen xehetasunak jaso zituen Amannek, eta tranbiaren

aldeko apustua egin behar dela aipatu zuen.

AZALPENAK HIRIGINTZA SAILEAN
Erakusketa udaletxeko ganbaran dago, eta udaletxea zabalik dagoen bitartean ikusi ahal izango da, hau da, 08:00etatik 21:00etara. Azalpenak gura izanez gero, baina, Hirigintza Sailean hitzordua egin behar da. /M.A.



Bertatik bertara ezagutu zituen Aretxabaletako datuak Amannek.

ARRASATE Hasi dira familia bila, aurtengo ere saharar umeak herrira ekartzeko

Fronte Polisarioko Euskadiko ordezkaritzak egindako eskaera onartu, eta beste urtebetez saharar umeak ekarriko dituzte Arrasatera. 12 ume etorriko dira; horrenbestez, haiek etxean hartzeko 12 familia behar dira. Uztailaren 3an iritsiko dira eta irailaren 3ra arte izango dira Arrasaten. *Oporrak* bakean programarekin etorri dira errefuxiatuak azken urteotan. Helburua da, oro har, haien bizi-baldintzak hobetzea. Interesa duten familiek udaletxera edo NUBI elkartera jo beharko dute, martxoaren 16a baino lehen. /U.M.

ESKORIATZA Aldaketak egin dizkio Hirigintza batzordeak Santa Ana proiektuari

Eskoriatzako Udaleko Hirigintza batzordeak zenbait aldaketa egin dizkio Santa Ana urbanizazio proiektuari. Besteak beste, auzoko bizi-kalitatea hobetzeko asmoz egin dutela eman du aditzera batzordeak. Astelehenean onartu zituzten aldaketak, guztira bost. Proiektua aldatuta, segurtasuna irabaztea du helburu batzordeak. Bizikletak uzteko toki handiagoa eta ibilgailuak motelago ibiltzea lortu gura dute, esaterako. Hala, besteak beste, Akeita kafetegia aurreko espaloia zabalitzea proposatu zuten. /Z.V.M.

GATZAGA Merkataritza Ganberak David Fernandez artisaua saritu du

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Leintz Gatzagako David Fernandez saritu du. Artisaua da Fernandez, eta urtetan lan hori egiteagatik saritu dute. Larrua lantzen du gatzagarrak, eta, besteak beste, poltsak eta diruzorroak egiten ditu. Horiek saltzeko denda txiki bat du herrian Davidek. Probintziako kultura eta ekonomia ohiturak zaintzen dituzten artisauen lanak saritzen ditu ganberak, 1991 ezker. Beste hiru artisauri ere eman diete saria aurtengoan. /Z.V.M.

Zazpi debagoiendar daude 18/98 sumarioko inputatuen artean. Baina, "arriskua Euskal Herriko biztanle guztiok dugulako", 18/98+ plataforma sortu dute, gizarteko hainbat eragile batuta. Manifestazioa deitu dute biharko.

OIHANA ELORTZA

Hainbat eragilek osatzen duzue 18/98+ plataforma. Nola eratu duzue?

Batetik, premiak bultzatuta daudenak daude plataforma horretan: ez bakarrik ezker abertzaleetik datozen pertsonak, baizik egoera zabaltzeko premia ikusi dutenak. Hortxe daude, adibidez, legegariak, euskararen esparruan lan egiten dutenak eta baita hainbat hedabidetako kazetariak ere. Horiek guztiak ere premiak hurbildu ditu. Behin ikusita hemen zerbait egin behar dela, eragileen gehitzea izan da basakeria horren aurrean ildo batzuk markatzeko eta ekintza batzuk jendearen artean zabaltzeko.

Zer ordezkatzen du talde horrek?

Sumario horrek ordezkatzen duen basakeriari aurrea hartzeko sortu da taldea. Talde irekia da eta ez ditu ordezkatzen, inondik inora, hor dauden pertsonen ideologiak. Pertsona horiek nork bere ideologia dute eta ideiak ez dira aldatzen, eta guk ez dugu hori ordezkatu nahi. Guk zera ordezkatu nahi dugu: injustizia handia dagoela; injustizia hori oso ondo eratuta dagoela bai medioen aldetik eta bai dauden indar juridiko eta politikoengatik; gizarteak aurrera joateko asmoa duela eta Euskal Herritik, afektatu nagusi moduan, oihartzuna ematea hori dena geldiarazteko. Gure esku dago horri aurre egitea, eta asmoa da gizarte osoa ordezkatuko duen plataforma sortzea.

Nola islatu da plataforma hori Debagoienan?

Haika eta Segiko jendea dago, baina baita mundu erabat ezberdinak ordezkatzen dituztenak ere. Gure asmoa taldea zabaltzea da: tabernariak, politikariak, irakasleak... Gizarte osoa ordezkatuko duen plataforma eratu gura dugu eta gure oihartzuna Madrilera helarazi.

Plataforman gaudenok esan nahi dugu hori ez dela bidezkoa eta ez dugula onartzen. Ez dugula onartzen egun askatasun eskubideen aldetik dagoen zapalkuntza eta babes falta, adibidez. Gainera, orain inputatuak berak erakutsi behar ditu frogak. Epaiaketa parametro horretan ikusteak beldurra ematen du. Horrek esan nahi du bidea zabalik uzten dutela aurrerago beste pauso batzuk egiteko.

18/98+. Ze sartzan da eta gehiago horretan?

Herriko Tabernetan jasotzen duten dirua ETArek sarrerak direla esango dute gero; *Euskaldunon Egunkaria*-ren auzia eta Orain-Egin auzia ere hortxe daude.

Eta gehiago-k esan nahi du Euskal Herri osoan bizi garenok dugula auziren bat izateko arriskua; gure ideiak ez baldin badatoz bat eurek neurtutakoekin, nolabait lege bat egingo dutela eta hemengo biztanle guztiok lege horren barruan sartuko gaituztela. Azken batean, legeak aldatzen doaz eta demokrazia urratzen doa. 18/98 sumario horretan ikusten duguna da eurek moldatu egiten dituztela legeak demokraziari bere zabaltasuna kentzeko. Hau da, demokrazia murrizten doa. Hori gertatzen denean, demokrazia zalantzan jartzen da eta *eta gehiago* horrek esan nahi du hau ez



OIHANA ELORTZA

Anaje Narbaiza

18/98+... PLATAFORMAKO KIDEA

"Gizartean kolore beste ideia daudelako eta eskubideak defendatzeko joan behar dugu Bilbora"

PLATAFORMAREN HELBURUA

"Sumario honek ordezkatzen duen basakeriari aurrea hartzeko sortu da taldea; irekia da, injustizia dagoela eta gizarteak aurrera joateko asmoa duela esan gura du"

18/98 ETA GEHIAGO

"Gure ideiak ez badatoz bat eurek neurtutakoekin, nolabait lege bat egingo dute eta Euskal Herriko biztanle guztiok lege horren barruan sartuko gaituzte"

dela sumario baten kontua, baizik denok gaudela hor sartuta eta sumario horrek atekazabalik uzten dituela Euskal Herriko gizarteko beste edozein gauza bera egiteko, baldin eta eurek dituzten kanonetan pentsatzen ez badute. Eta guk ikusten dugun arriskua horixe da, hain zuzen ere.

Atxiloketa asko egin dituzte.

Jarrai-Haika-Segi auzi horretan, ez dituzte siglak epaitzen, baizik pertsonak. Pertsona bakoitzak bere ingurua du: familia, lagunak, lankideak... Eta pertsona hori

hor auzipetua egoteak zipriztindu egiten ditu inguruan dituenak. Prozesatuak afektatu zuzenak dira, baina atxilotzen etxera sartzen direnean etxean beste pertsona batzuk daude. Azken batean, afektatu asko daude. Kontua ez da 220 prozesatu daudela 18/98 sumarioan, baizik horiez gain, ingurua askoz zabalagoa dela.

Askotariko eragileak joan dira sumarioko lehen epaietara.

Jendeak seriotasunez hartu du kontua. Inork ez du beste aldera begiratu. Ardura

handia du jendeak, eta, gainera, ikusten da jendeak badakiela injustizia dagoela, xehetasun hori ezagutzen duela. Gizartek ikusi du pertsona horiek euren ideien-gatik daudela auzietan, eta sentsibilizazioa dago.

Nola ikusi duzu orain arteko epaiaketa?

Epaiaketa utzi egin dio bakoitzari nahi duen hizkuntzan deklaratzeko, eta hori bada zerbait, baina gero ikusi da ez dutela baliabide nahikorik hori horrela egiteko. Itzultzaileekin gertatutakoak erakusten du hori. Argi dago ere epaiaketa izatera politikoa duela. Bestalde, uste dugu epaiaketa horren sententziak esango digula zein den benetan dagoen bidea.

Debagoiendarrak ere badaude 18/98 sumarioan. Zein da euren egoera?

Jose Luis Elkoro Ardatza eta Orain auzietan dago, eta 48 urteko zigorra du; Iñigo Elkorok, 12 urte Xaki auziagatik; Xabier Arregik eta Natale Landak ere 12na urte dituzte, biak Ekin auziagatik; Amaia Arrietak 10 urteko zigorra du orain epaitzen ari diren Jarrai-Haika-Segi auziagatik; Bixente Enekotegi Batasuna Finantzak eta Herriko Tabernak auzian dago inputatua eta eskaera fiskala egiteko dute oraindik; Fermin Lazkano, berriz, *Euskaldunon Egunkaria*-ko auzian dago inputatuta. Juan Ramon Aranguren ere makrosumarioan inputatuta dago.

Zer esateko joan behar da jendea Bilbora biharko deitu duzuen manifestaziora?

Geure eskubideak defendatzeko joan behar dugu, eta basakeria eta zapalkuntza hori salatzen.

Alderdi Popularrak eskatu du baimenik ez ematea, han bilduko direnak ETA babesten dutelako.

"Dena ETA da" da epaiaketa ateratzen den argumentu nagusia, ez dute beste frogarik eta argumentu bakarra erabiltzen dute edozertarako.

Hala ere, kontuan hartu behar da PPK hasi zuela politika hori. Horrek ez gaitu harritzen, baina gehiago harritzen gaitu PSOEek ezer ez egitea bide hori mozteko, jarraitu egin duela baizik.

Politika bera du PSOEek?

Bai. Eta egoera honetan atera dezakegun garrasi bakarra geurea da. Ezin dugu babes bila inora joan. Geure indarra adierazi behar dugu, eta horregatik ezinbestekoa da zapatuko manifestaziora joatea.

Manifestazio isila izango da.

Bai.

Zumetaren marrazkia aukeratu duzue manifestazioa deitzeko.

Zumetaren marrazkiak dituen koloreak beste ideia daude gure gizartean, horregatik dugu horren gizarte plural eta koloretsua. Elkarrekin bizi izaten ikasi behar izan dugu, baina horrelako jokabideek gorrotoa baino ez dakarte. Denok dugu ditugun ideiak garatzeko eskubidea, eta zoritxarrez sumario horietan eskubide horiek erabat murriztuta lagatzen dituzte. Guretako horregatik da horren garrantzitsua aldarrikapen hori gure oihi isilarekin Bilbo estaltzea eta isiltasunaren oihua Madrilera bidaltzea. Euskal gatazka konpontzeko borondatea dutenei, behintzat, bide hori ez dela zuzena adierazi gura diegu.

Zein da hurrengo pausoa?

Manifestazioarekin, hasi egiten da 18/98+ plataformaren lana. Egin dituen elkarretaratzeak ere oso baliagarriak izan dira sektore askotariko lagunak elkartzeko. Aurrerantzean lan horretan jarraituko dugu, taldearen lana ahalik eta arlo gehienetan zabaltzen. Eskualdeko udaletan, adibidez, laster mozioak aurkezteko asmoa dugu, eta baita hemengo enpresa eta elkarteetara joan eta gure jarrera azaltzeko.

gasteizon

centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU

www.gasteizon.com

2005eko otsailaren 25etik martxoaren 3ra

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES GURIDI ZINEMAK

"EL HUNDIMIENTO"
17:00 - 19:45 - 22:30
"ONE MILLION DOLLAR BABY"
17:00 - 19:45 - 22:30
"CONSTANTINE"
17:00 - 19:45 - 22:30
"EL AVIADOR"
20:30
"RAY"
17:00
"LOS PADRES DE EL"
17:30 - 20:00 - 22:30
"REENCARNACION" ESTRENALDIA
17:30 - 20:00 - 22:30
"HOTEL RWANDA" ESTRENALDIA
17:30 - 20:00 - 22:30

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES FLORIDA - GURIDI ZINEMAK

"ENTRE COPAS"
17:00 - 19:45 - 22:30
"LOS CHICOS DEL CORO"
17:00 - 22:30
"LARGO DOMINGO DE NOVIAGO"
19:45
"LA CASA DE LAS DAGAS VOLADORAS"
17:00 - 19:45 - 22:30
"EL SECRETO DE VERA DRAKE" ESTRENALDIA
17:00 - 19:45 - 22:30
"PARA QUE NO ME OLVIDES"
17:30 - 20:00 - 22:30
"DESCUBRIENDO NUNCA JAMAS"
17:30 - 20:00 - 22:30
"SUEÑO DE UNA NOCHE DE INVIERNO" ESTRENALDIA
17:30 - 20:00 - 22:30



Congreso y Turismo
Biltzar eta Turismo
VITORIA-GASTEIZ

URTARRILA • 26 larunbata

PAILAZOAK
Trampolín. 18:30. Falerina lorategia, Montehermoso
Kulturunearen ondoan
FLAMENKOA
El Torta de Jerez. 20:30. Jesus Ibañez de Matauco antzokia
(Hegoalde Gizarte Etxea)

URTARRILA • 27 igandea

FAMILIA GIROKO ANTZERKIA
"Willy"
18:00. Printzipal Antzokia

MARTXOA • 2 asteazkena

MUSIKA
Fernando Saunders
20:30. Printzipal Antzokia

MARTXOA • 3 osteguna

MUSIKA
Jabier Muguruza
20:00. Falerina lorategia
Les Poubelle Boys
20:30. Printzipal Antzokia

UPELEN IBILBIDEA

Erdi Aroko hirigunean txikiteoa, pintxoak eta gastronomia



ALMENDRAKO AZOKA

Erdi Aroko hirigunean dendaz denda

Larunbatean, martxoaren 3an, UPELEN IBILBIDEA 12:30etatik 15:00etara.
Erdi Aroko hirigunean eta inguruko kaleetako ostalariek antolatuta. Hauxe
eskaingo dute: TXIKITOA + PINTXOA EURO IAN.

ALMENDRAko azoka



**UPELEN IBILBIDEKO
POTEA + PINTXOA = EURO I
ESTABLEZIMENDUAK**

- 1 BAR AREITZAK TABERNA • Cuchilleria, 58
Arabako mendietako odolostea.
- 2 BAR BENDAÑA TABERNA • Cuchilleria, 63
Urdaiazpikoz betetako kroteta.
- 3 BAR RIVENDELL TABERNA • Cuchilleria, 13
Perretxikoak alolitan.
- 4 CAFÉ DUBLIN • Pl. de la Virgen Blanca
Berenjena izokin letuz eta pilkillo piperez betea.
- 5 CAFETERIA JARDIN DE FALERINA KAFETEGIA • Fray Zacarias, 2
Urdaiazpiko eta Cherry tomatetoz egindako brotxeta.
- 6 BAR EL NUEVO TABERNA • San Francisco, 1
Antzara-gibelaren tostada kipula-konfiturarekin.
- 7 BAR ARRANTZA TABERNA • San Francisco, 6
Tartaleta piperrada-gelatina eta bakailao-zatiarekin, pil-pil,
piper- eta perrexil-aparrez estalia.
- 8 TABERNA GREEN BAY TABERNA • Portal del Rey, 22
Tostada kurruskaria atunarekin eta piperrada minarekin.
- 9 BAR JOLAS LEKU TABERNA • Nueva Fuera, 3
Arrautza betea.
- 10 BAR MENFIS TABERNA • Nueva Fuera, 8
Orkatz-txistorraren puska, Germikako piper berdeen izpiez
bildua eta idiazabal gaztaren kremaz sueztituta.
- 11 BAR L'ESPRESSO TABERNA • Siervas de Jesus, 25
Idiazabal gazta.
- 12 BAR EXTITXU TABERNA • Pintoreria, 3
Gazta, tomate, leba eta oliba beltza.



GAUR NON BAZKALDUKO DUGU?

- A RESTAURANTE ARGENTINO LA YERRA • Correria, 46
Tel.: 945 26 57 59
- B RESTAURANTE EL PORTALÓN • Correria, 151
Tel.: 945 14 27 55
- C RESTAURANTE EL TULIPAN DE ORO • Correria, 157
Tel.: 945 14 20 23
- D RESTAURANTE EL 7 • Cuchilleria, 3
Tel.: 945 27 22 98
- E RESTAURANTE ANBOTO • Cuchilleria, 29
Tel.: 945 25 00 93
- F RESTAURANTE ROSI • Herreria, 44
Tel.: 945 25 02 48
- G JARDIN DE FALERINA • Fray Zacarias, s/n
Tel.: 945 13 82 52
- H ASADOR MATXETE • Plaza Matxete, s/n
Tel.: 945 13 18 21
- I CAFÉ PLAZA • Plaza de España, 7
Tel.: 945 13 98 51
- J BAZTERTXO • Plaza España, s/n
- K RESTAURANTE ALBENIZ • Portal del Rey, 9
Tel.: 945 25 05 30
- L CAÑAS Y TAPAS • Siervas de Jesus, 17
Tel.: 945 27 67 60

EKINTZAK

- 1 HAUREN TXOKOA • San Frantzisko plazatxoa
Ordutegia: 12:00etatik 14:00etara
- 2 GOURMETAREN TXOKOA • Buruileria plaza
Ordutegia: 11:30etatik 14:00etara
ASTURIASEKO ETXEA: gazta eta sagardo-dastaketa.
- 3 ARDO ONAREN TXOKOA • Buruileria plaza
Ordutegia: 11:30etatik 14:00etara
Parte hartzen duten ABRAKO ardandegia:
Bodegas SENOZURUA - Leza
Bodegas SENORIO DE LAS VIÑAS - LASERNA - Biasterri
Bodegas RIOFRANCOS - Eltziego
Bodegas GONZALEZ TESO - Bastida
- 4 LOREEN TXOKOA • Hedegile kalea
Ordutegia: 10:30etatik 14:00etara
- 5 DISEINATZAILE BERRIEN TXOKOA • Pintore kalea
Ordutegia: 10:30etatik 14:00etara
- 6 IBILBIDE KOMERTZIALA • Aiztogile kalea-Hedegile kalea
Ordutegia: 10:30etatik 14:30etara
- 7 KULTURA IBILBIDEA
Karten museoa c/ Aiztogile 54
Arkeologia-museoa c/ Hedegile
Farolen museoa c/ Zapateria



Casco Medieval Comercio y Hostelería
Erdi Aroko Hirigunea Dendak eta Ostalaritza

kultura
merkataritza

Jon Pozo / Zapatu gaua Gorbeian igaro zuen arrasatearra

“Ikasi dut mendian kontu handiagoarekin ibili behar dela”

XABIER URTZELAI

Gutxi gurako lukete mendian galduta ibili direlako elkarrizketa egitea. Eta badakit Joni ere ez diola grazia handirik egiten. Lagunak garelako, bizitako esperientziatik guztiok ikasi beharko genukeelako eta eskerrak eman gura dituelako onartu du elkarrizketa egitea.

Kontatzeko moduko esperientzia.

Bai, kontatzeko moduko esperientzia da, eta kontatu egin dezakedala da garrantzitsua.

Etxe ondoan, gainera, non eta Gorbeian.

Kontua da egiten zuen eguraldiak baldintzatu zuela gutia. Elurra goian eta behean, behe-lainoa, haize zakarra... Metro batera ere ez nuen ikusten, dena zen zuria.

Azal egiguzu zapatu goizean gertatutakoa.

10:30ak aldera iritsi ginen Muruara. Autoa utzi eta gorantz egin genuen Asierrek eta biok. Behean geundela ez zirudien

goian horren txarra egingo zuenik. Elur asko dagoenean ez da erraza mendian gora egitea, eta tontorra zenbatera zegoen argi ez geneukanez, nik buelta erdi ematea erabaki nuen. Gurata ibili ginen arrastoa uzten, baina biotako inork ez zuen pentsatu utzi-tako arrastoa horren azkar desgertuko zenik. Hortxe egin genuen hanka-sartzea: ni behe-rantz eta Asier gorantz.

Galdu eta berehala deitu zenuen larrialdi zerbitzuetara.

Erabat galduta nengoen, ez nuen ezer ere ikusten; ordu erdira-edo deitu nuen larrialdi zerbitzuetara. Esan zidaten geldi egoteko, bila joango zirela. Eta han egon nintzen 16:00ak arte. Hamar pauso mendian gora, hamar pauso mendian behera.

“Berehala konturatu nintzen galduta nengoela; metro batera ere ez nuen ikusten, dena zen zuria”

Noiz hasi zinen larritzen?

16:00etan-edo. Ordura arte lasai nengoen, burutik pasa ere ez zitzaidan egin gaua mendian igaroko nuela. 16:00ak aldera, baina, larrialdi zerbitzuetakoek esan zidaten adi egoteko, neure bila joan zirenak tontorretik hurbil zeudelako, txistua jotzen. Nik, baina, ez nuen ezer ere entzuten eta azkenean behera egitea erabaki nuen.

Mendian behera nentorrela erreka bat topatu nuen, eta erre-karen bidea jarraituta egin nuen behera. Halako batean, irrist egin eta erreka erori nintzen. Oinak busti zitzaizkidan, eta larrialdi zerbitzuetako medikuak esan zidan kamiseta termikoko mahukak moztu eta oinak haiekin babesteko. Oinak ondo lehortu eta beherantz jarraitu nuen; mendiko botak busti-bustita nituen berehala busti zitzaizkidan berri-ro ere oinak.

Ilunkera partean bisita izan omen zenuen.

Bai. Nik jarraitu behar nuen bidearen erdi-erdian basurde koadrila polita zegoen, eta eure-



XABIER URTZELAI

Hiru egun ospitalean egin eta gero, eguazten eguerdian etorri zen Jon Arrasaterara.

tako bat galanta zen. Ni ikusi eta alde egin zuten. Eskerrak.

Noiz izan zinen azkeneko larrialdi zerbitzukoekin?

18:00ak aldera. Ordurako urduri nengoen, neka-neka egin-da eta goitik behera bustita. Heli-

koptero bat bidaltzeko, bengalak botatzeko, edozer gauza egiteko esaten nien. Eta telefonoaren beste aldean zegoenak, “Aupa campeón, que tu puedes!”. Neukan haserrearekin haizea hartzera bidali eta telefonoa eskegi nuen.

“Gomendatzen dizut...”

SARIA

Konta egiguzu hor zehar ikusi duzuna!

Hondartza, mendi hori...
Aterpetxe, kanpaleku, ostatu hau...
Ibilbide, paraje, paisaia hura...
Herri, hiri, txoko hura...

Saria:

Asteburuko egonaldia Euskadiko landetxe batean (bi pertsonarentzat).

Gomendioak jasotzeko azken eguna: apirilaren 22a

Informazio zehatzagoa:

- Arrasateko Gazte Bulegoa: 943 77 00 65 edo gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
- Parte-hartze orria Gazte Bulegoan edo Interneten: www.arrasate-mondragon.org

Zure gomendioaren zain gaude!

Argazkian: Bled (Eslovenia)
Argazkiaren egilea: Aimar Elortza



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Hortik aurrera gaua.

Zelako hotza pasa nuen! Oinengatik nengoen arduratuta, Oiartzabal eta Pasaban etortzen zitzaizkidan burura. Nirekin etorri zen laguna nola egongo ote zen pentsatzen nuen, etxeoak, lagunak... Banekien gurasoak larri egongo zirela. Zuhaitz baten ondoan igaro nuen gaua. Jaiki egiten nintzen, gorputza astindu, eskuak eta oinak behin eta berriro igurtzi... Horrela igaro nuen gaua; harritzekoa bada ere, ez zitzaidan luze egin.

Noiz egin zenuen topo ertzainekin?

09:30 aldera edo... Ordu eta erdi inguru egin nuen mendian behera, eta zorabiatuta nentorren, erabat hustuta. Orduan elkartu nintzen ertzainekin. Jate-

Muruan utzi zuten autoa, baina jaisterakoan, eskuinaldera eginda Sarria inguruan azaldu zen Jon

ko zerbait eman eta behera eraman ninduten.

Gutxigatik ez zenuen lagunekin topo egin.

Bai, eurak ordurako mendian zebiltzan neure bila. Ez nituen ikusi, ertzainek berehala eraman ninduten eta ospitalera.

Zer ikasten da horrelako esperientzia batetik?

Gauza asko. Bizitza gehiago baloratzen, mendiari eta eguraldiari errespetu handiagoa izaten... Konturatu naiz benetako lagunak ditudala, nahiz eta eguneroko bizitzan konturatu edo baloratu ez.

Aurrerantzean zer sartuko duzu motxilara?

Galtzerdi lehorrak, seguru. Janaria igarri nuen faltan; zenbat bider gogoratu nintzen autoan utzi genuen ogi eta urdaiazpikoaz! Arropa onak eraman behar dira mendira; eskerrak Asierrek txamarra utzi zidan... ez nuen kontatuko, bestela. Metxero bat ere ez da txarto etortzen.

Zer moduz ospitalean?

Ondo, oso ondo. Kasualitate kontua, Gorbeia artzain batekin egon naiz gelan.

Kirolabur

MU/KIROL TXAPELKETA

Azto goizean jokatu zuten Oñatin Mondragon Unibertsitateko ikasleek kirol txapelketa. Hainbat fakultatetako ikasleak izan ziren, areto-futbol, futbol, frontenis, pilota, squash eta beste hainbat kirolekin lehiatzen. Kirol bakoitzeko onenek Donostiako EHUko ikasleen kontra neurtu beharko dituzte indarrak martxoaren 3an.

Irabazleek Deustuko ikasleen kontra jokatu dute martxoaren 9an.

FUTBOLA/PREFERENTEA

Preferente mailako 26. jardunaldia jokatu dute asteburuan. Mondrak eta UDAk jokatu dute etxean. Mondrak liderraren, Tolosaren, bisita izango du (zapatuan, 16:30ean). UDAk, berriz, taularen erdian dagoen Zestoaren kontra jokatu du (domekan, 16:30ean).

Etxetik kanpo jokatu dute Bergarak eta Aloña Mendik. Bergararak Mutrikura joango dira (zapatuan, 16:30ean). Eta Oruearen mutilek Errenterian izango dute norgehiagoka, Pasaia-aren kontra (zapatuan, 16:30ean).

MARATOIA/SAHARAN

Esteban Lazkano bergararra eta Imanol Pildain antzuolarra Saharara joango dira bihar, astelehenean egingo dute eta hango maratokia.

Imanol Pildain maratoi askotan izan da, baina Estebanendako hirugarrena izango da. Aurrekoak Lanzaroteko Ironman-a eta Madrilgo maratokia izan ziren, baina bistan da Saharako berezia izango dela. Lasterketa jokatu eta gero, egubakoitzera arte geratu dira Saharan.

ZIKLISMOA/M. IRIZAR

Valentzian dago Markel Irizar, Valentziako Itzulian. Joan den zapatuan hasi zuen denboraldia, Luis Puig sarian (59. helmugaratu zen).

Martitzenean, berriz, Valentziako Itzulia hasi zuten, eta lehenengo etapan Oñatikoa 101. helmugaratu zen. Eguaztenean hobeto ibili zen, 23. helmugaratu. Bost etapa ditu Valentziako Itzulia, eta zapatuan egingo dute azkenekoa.

ESKUBALOIA/OÑATI

Lehenengo Nazional Mailan Ldabilen Arrikruz Oñatiko Kobak taldeak Juventud Leganes taldearen bisita izango du bihar arratsaldean (18:00etan, Zubikoan). Urdanetaren kontra galduta, Oñatiko jokalariek ondo dakite etxeko puntuak zenbat balio duten.

Lehen territorial mailan, AGR Arrasatek ezohiko ordutegian jokatu du, Andoni Arandoren mutilek bihar, zapatua, jokatu dute eta. Leitzaran izango dute kontrario, 18:15ean, Musakolako kiroldegian.

Nola ikusten du bere burua gizartean askatasuna berreskuratu berri duen norbaitek?

kutxa zeharo

Kutxan, honela.

Honelako pertsonak lanean ikusten ditugu **kutxan**.

Horretarako, "**Gureak**" Taldearekin batera, **kutxa-zeharo** jarri dugu abian.

Gizartean baztertuak izateko arriskua duten pertsonak lan-munduan txertatzeko zerbitzu osotua da; hala nola etorkinak, ezinduek, epe luzean langabezian dauden adinduek, droga- edo alkohol-kontsumotik sendatzen ari diren pertsonak, enplegua lortzeko zailtasunak dituzten emakumeak...

Bertan, enplegua bilatzen laguntzeaz gain, beharrezko trebakuntza eskaini eta enpresekiko lan-kontratu ere kudeatzen diete.

Beste edonork bezalaxe egin baitezakete lan horiek ere. Konfiantza besterik ez dute behar, eta aukera bat ematea.

Informazio gehiago Arrasateko Kutxa-Zeharo Zentroan (Otalora kalea, 14) 943 71 25 51 telefono zenbakian edo www.begira.com helbidean.

iKER

SUKALDEAK:

ARRASATE:
Udala Plaza z/g
943 79 00 43

OÑATI:
San Lorentzo 1
943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE:
Zarugalde 52
943 79 99 42

FAGOR 




OMU
KERAMIKAK
DEBAGOIENA

Bainu altzari eta osagaiak
•
Hidromasaje kabinak
•
Manparak

BILTEGIA/BULEGOAK:
Meatzerreka 6 • Arrasate
943 79 14 28 • Faxe.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA:
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20



Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko otsailaren 25a

Kultura
eta
aisialdia



Otsailaren 25etik
martxoaren 4ra

Medikuak
esan dit
minbizia
dudala
JOXE
ARANZABAL

Medikuak
esan dit
minbizia
dudala
JOXE
ARANZABAL

Medikuak
esan dit
minbizia
dudala

elkar

elkar

Bi urte eta erdiko bizipenak, liburuan batuta

Izenburutik hasita, garbi eta barnetik idatzi du Joxe Arantzabal irakasle arrasatearrak minbizia antzeman ziotenez geroztik bizi izandakoaz. Hala egin zuen, 2002ko irailean www.sustatu.com weblogean esperientzia hori konpartitzen hasi zenetik. Orain, Interneten argitaratutako bizipen horiek *Medikuak esan dit minbizia dudala* liburuan batu ditu Arantzabalek. Martitzenean aurkeztu zuen lana, Arrasaten.

LIBURUA/ 'MEDIKUAK ESAN DIT MINBIZIA DUDALA'

Pena eta poza konpartitzeko uneak

MINBIZIA ANTZEMAN ZIOTEN EZKEROKO GOGOETAK LIBURU BATEN BATU DITU JOXE ARANTZABALEK; MARTITZENEAN AURKEZTU ZUEN

LEIRE KORTABARRIA

Penak konpartitu nituen bezala, orain zuekin egoteko eta nire poza konpartitzeko gogoarekin nengoan, esan zien Joxe Arantzabal arrasatearrak *Medikuak esan dit minbizia dudala* bere liburuaren aurkezpenean batu ziren lagunei. Emozioz betetako ekitaldia izan zen.

Minbizia antzeman ziotenean, 2002ko irailean, Joxe Arantzabal idazle eta irakasle arrasatearrak bere bizipenak *www.sustatu.com* euskal blogean idazten hasi zen. Orain, webgune horretan argitaratutako idatziak eta irakurleek idatzitako zenbait erantzun batu ditu Arantzabalek *Medikuak esan dit minbizia dudala* liburuan (Elkar argitaletxea). Liburu hori joan den martitzenean, otsailak 22, aurkeztu zuen jaioterrian Joxe Arantzabalek.

Monterron jauregiko aretoa lepo bete zen aurkezpenean. Ekitaldi jendetsua eta emozioz betetako izan zen. Azaldu ziren asko Joxe Arantzabalen lagunak edo gertukoak ziren, eta egileak eskertu egin zuen, hain zuzen, epe honetan guztian familia eta lagunengandik jaso duen babesa.

Joxek esan zuen bezala, oso pozik zegoen liburu azkenean kalean zegoelako, baina une tristeak, emozio handikoak, ere izan zituen: batez ere, Ivan Noble eta Jon Salaberria gogoratu zituen. Noble zen kazetari ingeles bat, minbiziak hila; hura ere blog bat idazten hasi zen gaitza antzeman ziotenean. Salaberria gogoran izan zuen Arantzabalek, "hiesa oso gaizki ikusia zegoenean, gai horretaz garbi hitz egin zuelako". Gero esan zuen liburuaren izenburuan "minbizia" hitza ager zedin nahi zuela, "hitz horrek izugarriko beldurra ematen digulako, eta pentsatu nuelako niri



Ezkerretik eskumara, Mikel Irizar, Joxe Arantzabal eta Iban Arantzabal, liburu aurkezpenean.

LEIRE KORTABARRIA

tokatu zitzaidala orain gai horretaz hitz egitea", azaldu zuen.

Segidan, argazki batzuen laguntzaz, gaixotasunak iraun duen arteko hainbat pasarte eta egoera gogoratu zituen.

KOMUNIKAZIOAREN GARRANTZIA

Egileaz gain, beste bi lagunek berba egin zuten: Mikel Irizarrek, Joxe Arantzabalen gertukoak, eta Iban Arantzabalek, *www.sustatu.com* weblogeko editoreak. Oro

har, mahai gainean hainbat mezu edo ondorio geratu ziren. Horietatik, errepikatuenetako bat izan zen komunikazioaren garrantzia. "Konturatu naiz hitz egitea eta entzutea, pertsonen arteko komunikazioa, oso garrantzitsua dela", esan zuen Joxe Arantzabalek, eta gaineratu zuen *www.sustatu.com*-en idazteak asko lagundu ziola gaixotasunari aurre egiten. Gaineratu zuen "minbiziak garbi hitz egitea" izan zela bere erabakia, batez ere amari eta alabari kontatzeko orduan.

Beste mezu bat izan zen ez zuela inoiz bizipoza galdu. Hori adierazten du Jose Felix Diaz de Tuestak ateratako argazkiak, liburu azalean. Egilea burusoil agertzen da, tratamenduaren eraginez. Arantzabalek honela azaldu zuen: "Ikusten da argazkiko pertsona gaixorik dagoela, baina ez dagoela gaitzaren mende".

Weblogen fenomenoak

Arantzabalek *www.sustatu.com* weblogean idatzi zituen bere bizipenak. *Medikuak esan dit minbizia dudala* izan zen bere lehen postako izenburua, hain zuzen. Horrek webgune hartako parte-hartzea handitzen eta komunitatea sendotzen lagundu zuen, eta hala gogoratu zuten Iban Arantzabal editoreak eta ekitaldira joan ziren zenbaitek ere.

Joxe Arantzabalek esan zuen weblog hartan hain sarri idazteak "egunerokotasunetik irteten" eta beste modu batera pentsatzen lagundu ziola. Orain, beste weblog baten idazten du Arantzabalek: *www.goiena.net/blogak/faroa* helbidean dago. Horrekin, Goienak blog komunitatea zabaltu nahi du, eta *www.goiena.net*-en edozeinek izango du aukera bere webloga egiteko.

Lehenengo idatzia

Irailaren 11 egun tristea bihurtu da niretzat: 1973an, Txile; 2001ean, Dorre Bikiak; eta aurten, minbizia. Horixe aurkitu didate medikuek eta horrexegatik nago ospitalean. Berrogeita hamar urte beteko ditut laster eta nire bizitza errotik aldatu da bi egunean.

Joan den asteartean lanetik irten eta masaje bat hartzera joan nintzen. Esan nion Pablo masajistari nola hiru egun lehenago lasterka egin eta min hartu nuen eskuineko hankan. Baina hankan ez ezik, barean ere min nuela, zilborretik ezker aldera. Sabel ingurua ukitu eta konturatu zen ezker aldean handituagoa nuela bestea baino. Zutik egonda ez zen hain ondo nabaritzen, baina etzanda bai. Gomendatu zidan medikuarengana jotzeko".

Horrela hasten da *Medikuak esan dit minbizia dudala*; horixe izan zen irailaren 15ean Joxe Arantzabalek *www.sustatu.com*-en argitaratu zuen mezuaren hasiera. Ekitaldian Iban Arantzabalek gogoratu zuen moduan, posta hark "erantzun uholdea" ekarri zuen, eta agerian geratu zuen, bestalde, Joxe Arantzabalek komunikatzen zekiela: "Oraingoan ere asmatu zuen zer eta zelan kontatu", esan zuen Iban Arantzabalek.

Idatzi guztiak 144 orriko liburu horretan batuta daude orain. Liburu-dendetan salgai dago lan hori.


Bellotza
UGARTE
Pentsuak

Bailara honetarako toki berezi bat, animalia handi eta txikientzako.

- etxeko animaliak
- janaria eta osagarria
- zoosanitarioak
- lorezaintza
- fitosanitarioak
- zeramika
- burdindegia
- brikolajea
- nekazaritza eta abeltzaintzarako produktuak

Albaitaritza
Euskal baserritarren zerbitzua

Bidebarrieta, 19 • 20560 OÑATI • Tel.: 943 78 03 04 • 656 79 48 15

ZINEMA/ II. EUSKAL FILM LABURREN ZIRKUITUA ANTOLATU DU TOPAGUNEA FEDERAZIOAK

Euskarazko film laburrak, gurean

MARTXOAREN 3AN, EGUENA, SEI EUSKAL ZINEMAGILEREN BOST LAN IKUSTEKO AUKERA IZANGO DA ARRASATEN ETA OÑATIN

LEIRE KORTABARRIA

Euskarazko bost film labur ikusteko aukera izango da eguenean, martxoak 3, Oñatiko kultura etxean, 20:00etan, eta Arrasateko Amaia antzokian, 20:30ean. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatutako II. Euskal Film Laburren Zirkuituaren barne izango da.

Iazko arrakasta ikusita, Topagunea federazioak bigarren urtez antolatu du Euskal Film Laburren Zirkuitua. Izan ere, iaz 23 emanaldi egin zuten Euskal Herrian, eta 1.200 ikusle batu. Gurean ere erantzun polita izan zuen ekimenak, Oñatiko Laixan elkarteko Amaia Kerexeta arduradunak dioskun bezala: "Normalean zineklub saioetara joaten den jende kopurua etorri zen iaz, 60 bat lagun; oso kopuru ona da". Euskal Herriko batez besteko ikusle kopurua ere hortik ibili zen. Laixan elkarreaz gain, Arrasateko AEDk ere parte hartu du Topagunearen ekintza horretan, eta baita Aretxabaletako Lora mendik ere; herri horretan atzo, eguena, ziren saioa egitekoak.

Ekintza honen bidez, alde batetik, hiriburuetatik kanpo normalean ikusteko aukera izaten ez diren filmak ematen dira herri askotan; eta, bestetik, elkarrekin euskarazko kultura produktu bat eskaintzeko aukera dute, hizkuntzan eraginez.

BI ZUZENDARI ETORRIKO DIRA

Euskal zinemagileek euskaraz grabatutako bost laburrek osatzen dute aurtengo eskaintza: Iñaki Beraetxe eta Iñigo Kintanak zuzendutako *Ostertz* (15'), Safy Nebbouren *Lepokoa* (23'), Angel Aldarondoren *Amnesiak* (6'), Ane Muñoz Mitxelena *El salto de Beamon* (15') eta Koldo Almandozen *Amuak* (9'). Topaguneak aukeratu ditu filmok egokitasunari eta iraupenari begira. Ordu eta laurdeneko saioa da.

Saioaren beste erakargarri bat da emanaldiaren ondoren zuzendari batekin berriketaldia egiteko aukera dagoela. Aretxabaletara Angel Aldarondo zen etortzekoa; Arrasatera, Iñaki Beraetxe, eta Oñatira, Koldo Almandoz. Berbaldi horietan hitz egitea oraindik kostatu egiten zaio askori, nahiz eta nor edo nor ausartzen den: "Batzuei kostatu egiten zitzaion parte hartzea, baina nork edo nork galdetzen zidan nondik ateratzen nituen ideiak, zelakoa zen film laburra egitea...", gogoratzen du Koldo Almandozek.



Amuak (Koldo Almandoz).



Ostertz (Iñaki Beraetxe eta Iñigo Kintana).



Lepokoa (Safy Nebbour).



Amnesiak (Angel Aldarondo).



El salto de Beamon (Ane Muñoz Mitxelena).

FILMEN HARIAK

Denetariko istorioak kontatzen dituzte bost film labur horiek. *Ostertz*-eko protagonistak aita seme batzuk dira; semea kartzelatik irten berri da droga trafikoa dela eta. Film honetan antzezle debagoiendar bat dago, David Errasti aretxabaletarra, hain zuzen.

Lepokoa-n, *Teresa* etxeko andrea *Angel* semearen zain dago Gabonetan. Herrian uste dute *Angel* ama baserritarraz lotsatzen dela, baina *Teresa* ziur dago etorriko dela, hala agindu dio eta.

Amnesiak filmak misterioa du ardatz: parke baten esnatzen da protagonista, larri zaurituta, eta ez da ezertaz gogoratzen.

El salto de Beamon-ek *Leire* txikia aurkezten digu, Bob Beamon-ek Olinpiar Jokoetan egin dako jauziak txundituta. Film honen elkarrizketa batzuk gaztelaniaz dira, baina zati handiena euskaraz dago.

Azkenik, *Amuak* filmeko arrantzale bakartia, arrain mota bakoitzarendako amu bat ezagutu ondoren, ezinezkoa arrantzatzeko amuaren bila dabil.

KOLDO ALMANDOZ / ZINEMAGILEA

"Film laburrenganako interesa handitzen dute ekimen hauek"

Oñatiko emanaldiaren ondoren, Koldo Almandoz (Donostia, 1973) zinemagilearekin berriketatu egiteko aukera egongo da. Iazko edizioan ere parte hartu zuen.

Zer iruditzen zaizkizu Zirkuitu hau bezalako ekimenak?

Oso aukera ona da gure lana zabaltzeko, eta jaialdietatik kan-

po egiteak giro lasaiagoa dakar, lehiakortasunik gabe.


Euskal Herrian badugu film laburrak ikusteko ohiturarik?

Badugu, bai; interesa handitu egin da batez ere azken urteotan, eta Topagunearen zirkuituak, Kimuak ekimenak... lagundu egiten dute. Jendeak gustura ikusten ditu laburrak, ez dutelako aspertzeko eta, hala bada, behintzat azkar bukatzen direlako.

Hala ere, ez gaude oraindik Frantzia, Alemania edo Italiako mailan; hau da, hemen, film laburra kontsideratzen da film luzearen ania txikia, luzea egiteko prestakuntza antzekoa. Frantzia, adibidez, film laburrak bere prestigioa du.

Zeintzuk dira film laburrak egitearen berezitasunak?

Asko alda daiteke film labur batetik bestera: formatua, aurrekontua... Baina niri gehien gustatzen zaidana da ematen duen askatasuna; ez dago film luzean bezalako presiorik.



Koldo Almandoz.

TOPAGUNEA

Ots. 25-Mar. 4

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ANTZUOLA

► **Erreka bideratzeko proiektua** ikusteko aukera dago martxoaren 15era bitartean. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan dago erakusketa, honako ordutegian: astelehenean egubakoitza, 10:00-13:00 eta 14:30-19:00; zapatuetan, 10:00-13:00.

ARETXABALETA

► **Gaszte asanblada** deitu du Atxabaltako Gaszte Ekimenak. Gaur, egubakoitza, batzartuko dira 19:30ean. Helburua da Aretxabaleta gazteen aisialdia aberasteko proposamenak eztabaidatzea.

► **Emakumeak euskal mitologian** delako hitzaldia egingo du Anuntxi Aranek eguenean, hilak 3, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Loramendi euskara elkarteak antolatzen du.

ARRASATE

► **Meatz Erreka elkarteak** batzar orokorra egingo du gaur, egubakoitza, euren egoitzan, 19:00etan.

► **Izaskun Murgia elkarte lirikoak** dei egiten die *Baserría* zarzuelan parte hartuko dutenei astelehenean, hilak 28, hasiko diren entsegetara. 21:15ean batuko dira.

► **Sexualitate Osasuntsuak** delako mahai-ingurua egingo dute hilaren 3an, eguena, Monterronen, 18:00etan, Agurtzane Ormaza sexologoak eta Emilio Lopez Adan ginekologoak. Udal Sexologia Zerbitzuak antolatzen du ekitaldi hori.

► **60ko kintoek** ospakizuna egingo dute martxoaren 12an. Meza izango dute San Frantziskon, 12:30ean, eta bazkaria segidan Amaika Gazte elkartearen. Izena emateko, deitu German Morenori (943 90 61 64) edo Carmelo Amozarraini (943 79 59 29).

BERGARA

► **Tenis txapelketan izena emateko** epea luzatu egin dute. Hain zuzen, gaur, egubakoitza, ere badago horretarako parada. Kirol zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu behar dituzte; gainerakoek, 15. Txapelketa bihar, zapatua, hasiko da Labegaraletan.

► **San Joxepe elkarteko** zuzendaritza batzordea berritu nahi dute, eta parte hartzeko izenemate epea zabalik dago hilaren 28ra bitartean, astelehena. Horretarako, batzordeko oraingo kideren batengana jo behar da.

► **EAJ alderdiak** etzi, domeka, Donostiako Kursaalaren egingo duten ekitaldi politikora joateko autobusak antolatu dituzte. Joan-etorria egiteko txartelak salgai daude 5 eurotan.

ELGETA

► **Bertso saioa** egingo dute gaur, egubakoitza, Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Unai Agirre eta Estitxu Arozenak. Espaloia kafe antzokian izango da, 22:30ean.

ESKORIATZA

► **Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Sailburua** Bizigune programaren hitzarmena sinatzera etorriko da hilaren 28an, astelehena, udaletxeko pleno aretoan, 12:00etan.

► **Guraso eskola** antolatzen hasiko da udala, eta izenemate zabalik dago otsailaren 28ra bitartean, udaletxean edo kultura etxean. Ordu eta erdiko saioetan, hainbat gai landuko dituzte: dolu egoerak, haurtzarora eta hizkuntza eta anai-arreben arteko hartu-emanak.

OÑATI

► **Aittajaun-amandrien Astea** bukatzeko, Haur Hezkuntzako ikasleen aiton-amonei omenaldia egingo diete Elkar Hezi ikastetxeok gaur, egubakoitza, beneditarren eskolako aretoan, 15:00etan. Modu horretan, eskertu gura diete umeak zaintzen eta eurekin egoten ematen duten laguntza.

► **Txistulari alardea** izango da bihar, zapatua, Zubikoako pilotalekuan, 22:30ean. Euskal Herriko hainbat taldeko 50 txistularik egingo dute emanaldia, Lander Diaz de Gereñu oñatiarrak zuzenduta.

► **Hiltegiaren gaineko bideragartasun txostena** egin du Siadecok, Hiltegia Bizirik plataformak eskatuta, eta txosten hori aurkeztuko dute hilaren 28an, astelehena, institutuan, 18:30ean. Deialdi irekia da, interesa duen edozeinendako.

► **Emaloña alargunen elkarteak** hildako bazkideen aldeko meza egingo du martxoaren 1ean, martitzena, San Martin egoitzako kaperan, 17:00etan.

► **Nagusien boluntario lana** argitzeko hitzaldia izango da eguaztenean, martxoak 2, Pake Leku erretiratuen egoitzan, 17:30ean. Nagusilan erakundeak egingo du berbaldia. Beste alde batetik, zabalik dago Errioxara irteerarako izenemate epea. 08:30ean abiatuko da autobusa, herriko geltokitik; Laguardia, Logroño, Bastida eta Haro bisitatuko dituzte. Izena emateko, jo Pake Lekuren egoitzara astelehen edo eguaztenetan, 18:30-20:00 ordutegian. 28 euro da bazkideendako, 30 gainerakoendako.

► **Ingurumen Astearen barne**, honako ekintzak izango dira egunotan: gaur, egubakoitza, Itoizko urtegiaren gaineko hitzaldia natur eskolan, 19:00etan; etzi, domeka, Zuhaitz Eguna

egingo dute eta hainbat zuhaitz landatuko dituzte. Herriko plazan batuko dira 10:00etan. Astelehenean, hilak 28, Kantauriko zetazeoen eta itsas bizitzaren gaineko hitzaldia izango da natur eskolan, 19:00etan, eta martitzenean, hilak 1, *Deep Blue* filma emango dute kultura etxean, 19:30ean.

ANTZERKIA

BERGARA

► **Marsel magoak** helduendako magia emanaldia egingo du etzi, domeka, Go Jam aretoan, 20:00etan.

ESKORIATZA

► **Totamka** Madrilgo taldeak ipuin kontaketa saioa egingo du gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean.

OÑATI

► **Xomorroak** antzezlanaren egingo du Hankatxo taldeak etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 17:00etan. 4 euro da, 3 euro aldeaz aurretik erosita.

MUSIKA

ARRASATE

► **Scam** taldeak punk-rock emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Gure Leku tabernan, 23:00etan.

► **Haitz eta Loren** disko jartzaileen emanaldia izango da bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 03:00etan.

BERGARA

► **Neubat eta Potemkin** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Go Jam aretoan, 22:00etan.

► **Kogollo Krew Party** delako jaialdia izango da bihar, zapatua, Go Jam aretoan, 01:00etan. Sarrera eta edaria, 10 euro.

► **Quiet Riot eta Hira** taldeek kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, Jam aretoan, 20:00etan.

► **Shotta** taldeak joko du hilaren 4an, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. Sarrera da 10 euro aldeaz aurretik salmentan, eta 12, berriz, txarteldegian.

ELGETA

► **Arrasateko Big Band** taldeak jazz estiloko emanaldia egingo du bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 22:30ean.

► **Fernando Saunders** Lou Reeden baxu-jotzaileak, kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, martxoak 4, Espaloia antzokian, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

ELGETA

► **Antonio Irisarrik** argazki erakusketak du Espaloia kafe antzokian. Martxoaren 2ra bitartean izango duzue ikusteko aukera.

LEHIAKETAK

BERGARA

► **Txorimalo lehiaketa** deitu du Jardun elkarteak. Izena eman behar da martxoaren 11 baino lehen. Argibideak, 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefonoetara deituta.

DEBAGOIENA

► **Sexmetraia** sexualitatearen gaineko film labur lehiaketa deitu du Arrasateko Sexologia Zerbitzuak. Edozeinek parte har dezake, eta mugaeguna da ekainaren 10a. Argibide gehiagorako, jo Interneteko www.sexologiazarbitzua.com/sexmetraia helbidera edo deitu 943 79 80 10 telefono zenbakira. 2.400 euro banatuko dituzte hiru saritan.

ESKORIATZA

► **Ibarrandi Museorako izen eta logotipo** lehiaketa deitu dute. Izenak gune berriaren adierazgarri izan



► KONTZERTUAK

METAL ESTILOKO GAUA, ENSLAVED ETA VREID NORVEGIARRERKIN

Eskandinaviako metal ilunak bere ezaugarri propioak ditu, eta baita bere ospea eta bere jarraitzaileak ere. Bihar, zapatua, estilo hori lantzen duten bi talde norvegiarrek girotuko dute gaua Bergarako Jam aretoan. Enslaved da eskaintza nagusia. 1991n sortu zen talde hori, eta bere berezitasuna da euren estiloa norabide berrietatik abiarazteko duten erraztasuna. Horren emaitza da metal soinu sakon eta aldakorra. *Below the Lights* disko berria horren erakusgarri da, eta Grammy sarierarako izendatu zuten. Adituen esanetan, zuzeneko itzelak egiten dituzte. Enslaved-en aurretik joko dute beste norvegiar batzuek, Vreid-ekoek. *Kraft* debut diskoak Sepultura, Metallica edo Motörhead-en estiloa gogorarazten du.


Non: Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** bihar, otsailak 26 zapatua. **Ordua:** 20:00. **Sarrerak:** 18 euro; 15, aldeaz aurretik.

AIPAGARRI

Ibai Redondo

BERGARA

Korrikako Debagoieneko arduraduna da Ibai Redondo bergarra. Arrasateko AEKn dabil, Korrikaren inguruko gertaera guztiak koordinatzen. Kilometroak erosteko, 943 77 03 69 zenbakira deituta nahiko da; 320 euro balio du kilometroak. Korrika martxoaren 16an iritsiko da eskualdera.



Jose Ramon Vitoria

ARRASATE

Hezkuntza berezia jasotzen duten pertsonen duten musikarekiko dohaina eta haiek instrumentu bat jotzen ikasteko duten abilezia aztertu du Jose Ramon Vitoria irakasle eta musikari arrasatearrak. Doktoretza tesia egin du azterketa horrekin, eta *cum laude* eman diote.



Maider Unda

ARAMAIO

Zazpigarren aldiz jarraian da Espainiako txapelduna borroka librea Mainer Unda gazte aramaioarra. Gijonen jokatu zuen proba joan den asteburuan, eta irabazi egin zuen. Lehenengo borrokan sufritu egin zuen arren, finala erraz irabazi zuen Kanariar Uharteetako aurkariaren kontra.



HILDAKOAK

- Anjel Etxabe Arana.** Aretxabaletan, otsailaren 17an. 67 urte.
- Felix Zubia Zabala.** Eskoriatzan, otsailaren 17an. 84 urte.
- Emilia Zillaurren Azkargorta.** Aramaion, otsailaren 18an. 85 urte.
- Francisco Unamuno Arbulu.** Bergaran, otsailaren 18an. 79 urte.
- Margari Diaz de Mendibil Saez de Viteri.** Gatzagan, 18an. 74 urte.
- Alejandro Martin Lazaro.** Arrasaten, otsailaren 19an. 95 urte.
- Bernardino Zuazubiskar Arrizabalaga.** Arrasaten, 19an. 82 urte.
- Higinio Igartua Arruti.** Bergaran, otsailaren 19an. 83 urte.
- Jose Alberdi Garaileku.** Bergaran, otsailaren 19an. 81 urte.
- Eusebia Merino Fernandez.** Arrasaten, otsailaren 20ean. 95 urte.
- Gregoria Agiriano Zubia.** Eskoriatzan, otsailaren 21ean. 93 urte.
- Jose M. Bikuña Arrazola.** Oñatin, otsailaren 21ean. 79 urte.
- Josefa Garmendia Gabilondo.** Arrasaten, 21ean. 77 urte.
- Manuel Lopez Suarez.** Bergaran, otsailaren 21ean. 83 urte.
- Milagros Mondragon Berezibar.** Arrasaten, 22an. 98urte.
- Bizente Larrañaga Arizaga.** Bergaran, otsailaren 23ean. 79 urte.



Aramaioko Gantzaga auzoko Saatza baserriko **Maria Elortza** eta **Norberto Errasti** duela 50 urte ezkondu ziren. Otsailaren 19an egin dituzte urrezko ezteiak. Zorionak, bioi, familiaren partetik!



Azkenean animatu dira! **Maite** eta **Gorka** bihar, zapatua, otsailak 26, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Zorionak, koadrilako lagunaren partetik!

ESKER ONA

Emilia Zillaurren Azkargorta

Kepa Altunaren alarguna

Aramaion hil zen 2005eko otsailaren 17an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aramaion, 2005eko otsailaren 25ean.

MEZA

Angelita Lizarralde Jauregi

Jose Maria Landa Goibururen alarguna

Donostian hil zen 2005eko otsailaren 7an, 93 urte zituela.

Gerra osteko Labegaraietako Andereñua izan zenaren aldeko meza domekan, otsailaren 27an, 11:00etan, Bergarako Labegaraieta auzoko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Natalio Maiztegi Antia

Oñatin hil zen 2004ko otsailaren 28an, 33 urte zituela.

Inor ez da guztiz hiltzen norbaitek bere bihotzean eramaten badu. Ez dut inoiz zure irribarrea ahaztuko.



Zure lagunak.
Oñatin, 2005eko otsailaren 25ean.

URTEURRENA

Maria Larrea Aldanondo

Lehen urteurrenako meza domekan, otsailaren 27an, 11:30ean, Antzuolako parrokan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Oier Carballares Badiola

Bosgarren urteurrenako meza domekan, otsailaren 27an, 12:00etan, Eskoriatzako San Pedro Parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.



HEMEN BAKARRIK IKUSTEN DA ONENA.

Hemen bakarrik abona zaitezke Digital+era baldintza hauekin:

3 HILABETE ERDI PREZIOAN | IZENEMATE KUOTA **45 €** | Antena eta instalazioa **DOAN**

Zeren zain zaude. Egin zaitez DIGITAL+en abonatu Milar Elkoron. Olarte kalea 1 (Arrasate)



Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

Laser bidezko depilazioa

Ile mota bakoitzarentzako laser bat.
Ile kolore bakoitzarentzako laser bat.

- Neodimio Yag laserra
- Alexandrita laserra
- Fotodepilazioa

Ordua eskatuta:

diagnostikoa, proba doan eta aurrekontua.

IRAGARPENA

ZAPATUA, 26 / Max.: 5° / Min.: 4°



Eguneko lehen partean zerua hodeitsu egongo da eta prezipitazio arina egongo du. Elur-maila 300-400 metro inguruan kokatuko da. Temperatura minimoa gutxi edo moderatu ki igoko da. Temperatura maximoak egonkor utsaliko dio. Izozte ahulak izango dira.

DOMEKA, 27 / Max.: 1° / Min.: -1°



Zerua hodeitsu egongo da eta prezipitazio arina egongo du arratsalde partean. Elur-maila 300 metro inguruan kokatuko da, eta egunean zehar 100 metrora jaitsiko da. Temperatura minimoan eta maximoan ez da gorabehera handirik izango. Izozteak ahulak izango dira.

ELURRA

Neguko fenomeno zuria: elurra

Elurra hodeietatik maluta zuritan erortzen den ur izoztua da. Neguak lehen eguraldi hotzak bidaltzen dizkigunean, urak elur eta izotz era hartzen du.

Temperatura zero gradu azpitik dagoenean gertatzen den fenomeno atmosferikoa da elurra. Egoera horretan, prezipitazio urtsuan erortzen diren kristal txikiak ez dira erabat urtzen, eta orduan sortzen dira elur-malutak. Gure begiek ez ikusi arren, beso bakoitzean adar mordoxka duten izar hexagonal multzoak dira malutak. Ez dute pisu handirik, eta, ondorioz, motel-motel erortzen dira, 30 eta 80 zentimetro/segundo bitarteko abiaduran.

Gurean, elurraren formak baino gehiago, kantitateak sortzen ditu buruhausteak, elurteetan errepideak arriskutsu egoten baitira. Hori dela eta, zentzudunena da eguraldi iragarpenak arretaz jarraitzea eta badaezpada neurriak hartzea. Edozelan ere, adituek diote gero eta elur gutxiago egiten duela. Haien esanetan, azken mende erdian elur kopurua %20 jaitsi da Europan.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:



www.euskalmet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Gauza	Gose handia	Bila
	Ekintzak	Pirataren edari	
Jarraitasune z	Une gorena	Azkena eta lehena	Pozoi izena
Gabe	Gizonezko izena	Urruma eginez	
Egiptoko jainkoa	Listua	Pepe ... kazetaria	Azken letra
Engainu, azpikeria	Zegoen	Euskara irakasten du	
Garau, bihi	Nau	...	Urania
Pare bat	... egin, garaitu	...	
T birritan	Eskaini	Gar	Kiloa
*Deitura	Atomo kargatu	Kiloa	
Aho-gaixotasun
Silizioaren gatza

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



ZER IKUSI?

- Zer ikusten da Migelikori begietara zuzen-zuzen begiratzen zaionean?
- Kaskezurraren hondo!

BETAURREKOAK

Ekainaren hasieran gaude. Xabier Arzalluz Bilboko optikarik hoberenera sartu da. Eta bere estilo zorrotz, zuzen eta laburrean adierazi du zer nahi duen:
- Betaurrekoak nahi ditut.
- Eguzkitarako?
- Ez! Euskal Herrian ibiltzeko!

GARAGARDOAK DIRELA ETA

Ertzainek Asisko Urmeneta gerarazi dute Andoain inguruan, bezeroak elemaniaka bildu ohi dituen sagardotegi horietako batetik bueltan, Iruñeko bidean doala. Sagardoa aski eta abasto edan du eta mokorua bildu ondoren, alkoholemiak positibo (ez baikor ordea) eman dio.

Hilabete batzuetara, epaitegi baten aurrean deklaratu behar izan du.


Epaileak, serio demonio, honela esan dio:
- Jakingo duzun, garagardoak direla eta zaude zu hemen.
- Hori bai pitokeria!
Dena dela... noiz hasi behar dugu besta afrusa hau?

TOLOSARKERIAK

- Zertan antzematen da jasotako faxa Tolosatik bidalia den ala ez?
- (!!!)
- Zigilua erantsita daramalako.

SOLUZIOAK

O	T	A	K	I	L	I	S
R	A	K	•	O	I	K	•
U	•	A	K	I	X	U	W
N	A	M	•	E	T	•	•
A	K	U	A	N	•	B	I
I	E	R	•	E	A	L	•
Z	•	R	U	Z	U	R	I
•	A	U	T	•	A	R	•
A	Z	•	K	I	R	I	B
T	I	N	E	Z	•	J	•
E	N	E	J	•	•	•	•
K	A	R	O	B	R	A	K
•	J	•	O	•	•	•	•



Otsailaren 28a: 033 zozketa

Harpidedunen txokoa

Sariak astero!

Astlehenean, otsailak 28, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Otsailaren 28ko sariak

- Juan Martin Elexpururen '**BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**'. Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.



- Korrika Kulturalaren barruan Oñatiko Santa Ana antzokian izango den **BERTSO-TRAMA** arako (Elortza, Lujanbio, Egaña eta Arzallus) hiru sari (saridun bakoitzarendako bi gonbidapen).
- Martxoaren 4an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **FERNANDO SAUNDERS**-en kontzertua ikusteko (Lou Reed taldeko baxu jotzailea) bi gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).

EIBAR-ELX

futbol partidua ikusteko lau sari, saridun bakoitzarendako bi gonbidapen.



BALDINTZAK

- Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astlehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astlehenean, aste bukaera osoa

032
zozketa
saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

Otsailaren 26an Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **ARRASATE BIG BAND** taldearen emanaldirako lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).

- Jose F. Ibarguren Iturrino (Aramaio)
- Roberto Iria Ugarte (Arrasate)
- Joxe Mari Ganboa Arabaolaza (Arrasate)
- J.A. Zangitu Peña (Aretxabaleta)

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).


- Naiara Zubizarreta Urtzelai (Aretxabaleta)
- Iñaki Galdos Irazabal (Oñati)

Juan Martin Elexpururen '**BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**'. Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.

- Luis Azkarate Retolaza (Bergara)
- Edorta Zubizarreta Alegria (Eskoriatza)

Otsailaren 25ean Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, Elgetako Udalak antolatutako **BERTSO SAIORAKO** (Lizaso, Murua, Unai Agirre eta Estitxu Arozena) lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).

- Susana Garcia Martin (Eskoriatza)
- Luis Mari Garitano Alvarez (Bergara)
- Iñaki Azkoitia Zubizarreta (Aretxabaleta)
- Ana Molina Ibizate (Bergara)




'Filma'

ASTEBURUA / * ikus beheko taulan



'Debarri'

MARTITZENA, 1 / 21:00 eta 22:00



'Danbaka bira'

EGUAZTENA, 2 / 21:30 eta 23:15



'Auñamendietan'

EGUENA, 3 / 21:30 eta 23:15

Salomon erregearen mehatzeak

Salomon errege handia izan zen. Emazte asko eta aberastasun handia edukitzeagatik eta zuhurtziagatik izan zen ezaguna. Bere aberastasunak leize batean gordearazi zituen. Altxorrek batera, neska gazte bat ere utzi zuen preso.

Eskoriatzako kontuak berbagai 'Debarri' saioan

Astebeteko atzerapenez, baina oraingo martitzenean, Eskoriatza izango dugu berbagai. Juan Karlos Bengoa alkateari galderaren bat egin gura badiotzu *Goiena.net* webgunean duzu horretarako aukera. Aurkezlea: Alberto Gorritiberea.

Azkaiter Pelox bakarleri bergararra taula gainean

Unai Azkarate musikaria dago Azkaiter Pelox izenaren atzean. Hainbat musika taldetan ibili ondoren, Danbaka biran bakarleri moduan aurkeztu zen. Azkaiterrek emanaldi ikusgarria egin zuen Elgetako Espaloia kafe antzokian.

'Laino zakarra Auñamendin' izeneko kapitulua, egunean

Oraingoan, Auñamendi (Anie) mendia zeharkatuko dute. Horretarako, Laveruet aterpetxetik irten eta 12 ordu inguruko ibilbide gogorra egingo dute. Amaiera Belaguako aterpetxean izango dute.

TELEBERRIAK

'Basetxea Taberna' saiorako lehiakide bila dabil ETB

Apirilean hasiko da *Basetxea*-ren seigarren denboraldia. *Basetxea Taberna* deituko da; izan ere, lehiakideek ostalaritzako lokal bat txukundu beharko dute taberna moduan erabiltzeko. Gero, tabernan ahalik eta ondoen lan egiten eta elkarrekin ahalik eta ondoen bizitzen ahalegindu beharko dute txapelketa irabazteko. Taberna hori hilabetez zabalduko dute, Deban. Hilabete horretan irabazten duten dirua izango da lehiaketako saria. Hala, lehiakideak behar dituzte *Basetxea Taberna*-rako. Hain zuzen ere, castinga egingo dute. Interesa dutenek 905 44 50 13 telefonora dei dezakete edo *basetxea@eitb.com* helbidera idatzi.

Gari 'Goenkale'n' azalduko da

Pertsona ezagunak gonbidatzen segitzen dute *Goenkale*-n. Oraingo honetan, Gari abeslariari egokitu zaio. Martitzenean, hilak 22, grabatu zuten kapitulua. Abeslari legazpiarrak azken diskoko kantuak abestu ditu Sobia tabernan. Tabernako ugazaba Txapasekin berriketan ere ibili da bide batez. EiTbK oraindik ez du zehaztu noiz emitituko duten kapitulua.

Canal+ katearen eskaera aztertuko dute

Sogecablek baimena eskatu dio Ministroen Kontseiluari egunean modu irekian sei orduz emititu beharrean 24 orduz emititzeko. Protesta ugari izan den arren, Espainiako Gobernuak erabaki du eskaera aztertzea.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Otsailaren 25etik 3ra



EGUBAKOITZA 25	ZAPATUA 26	DOMEKA 27	ASTELEHENA 28	MARTITZENA 1	EGUAZTENA 2	EGUENA 3
13:50 Marrakzi bizidunak: - Fernando Amezketarra - Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Behazulo 14:45 Auñamendietan 15:15 Berriak Aurrerapena 15:30 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak 21:00 Ilunpean: Joxe Arantzabal 21:30 Gure lanbide zaharrak 22:00 Berriak 22:30 Ilunpean 23:00 Gure lanbide zaharrak 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	11:05 Behazulo 11:35 Ilunpean: Joxe Arantzabal 12:05 Marrakzi bizidunak: - Fernando Amezketarra 13:05 Marrakzi bizidunak: - Lazkao Txiki 13:30 Auñamendietan 14:00 Filma: Salomon erregearen mehatzeak 14:55 Ilunpean 15:30 Bi eta bat 16:00 Klip@ 16:15 Behazulo 16:45 Mandio: Kiroalak 17:15 Danbaka bira: Lukas Prest 17:45 Marrakzi bizidunak: 03 Patrulla 18:45 Emisio amaiera	11:00 Filma: Salomon erregearen mehatzeak 12:00 Marrakzi bizidunak: 03 Patrulla 13:10 Marrakzi bizidunak: - Lazkao Txiki 13:25 Ilunpean: Joxe Arantzabal 13:55 Auñamendietan: Sarrioren begirada 14:30 Gure lanbide zaharrak 15:00 Filma: Salomon erregearen mehatzeak 15:50 Mandio 16:30 Bi eta bat 17:00 Marrakzi bizidunak 18:00 Ilunpean 18:30 Klip@ 18:45 Danbaka bira: Lukas Prest 21:00 Emisio amaiera	13:50 Marrakzi bizidunak: - Fernando Amezketarra - Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Ilunpean 15:00 Gure lanbide zaharrak 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak 21:00 Harmailatik 21:30 Auñamendietan 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Auñamendietan 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrakzi bizidunak: 03 Patrulla 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Harmailatik 15:00 Auñamendietan 15:30 Berriak 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak: 03 Patrulla 21:00 Debarri: Eskoriatza 22:00 Berriak 22:30 Debarri: Eskoriatza 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrakzi bizidunak: - Fernando Amezketarra - Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Debarri: Eskoriatza 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak 21:00 Bi eta bat 21:30 Danbaka bira: Azkaiter Pelox 22:00 Berriak 22:30 Bi eta bat 23:00 Danbaka bira: Azkaiter Pelox 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrakzi bizidunak: 03 Patrulla 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Bi eta bat 15:00 Danbaka bira 15:30 Berriak 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak: 03 Patrulla 21:00 Behazulo 21:30 Auñamendietan: Laino zakarra Auñamendian 22:00 Berriak 22:30 Behazulo 23:00 Auñamendietan 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera
21:00 Ilunpean	14:00 Filma	18:45 Danbaka bira	21:00 Harmailatik	21:00 Debarri	21:30 Danbaka bira	21:00 Auñamendietan

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

KAMERAURREAN



"Osakidetzan duela lau urtetik daude hitzarmen barik. Gure aldarrikapenarekin gura dugu zerbitzu hobea emateko, langileen lan baldintzak hobetzea".

Izaskun Garikano / ELAko ordezkaria 'Berriak' (2005/02/22)



"100 urtetik gorako espetxe zigorrak eskatzen dira prentsaurreko bat emateagatik, horrek erakusten du ideiak eta Euskal Herria bere izatean eraso gura dituztela".

Maite Aristegi / 18/98 + ekimena 'Behazulo' (2005/02/24)

TELEBEGI/ Eneko Azkarate

Suspensea

Azkenaldian boladan daude etxean ekoiztutako telesaioak. Jendeak gustuko ditu eta telebista kateek, pribatuek batez ere, Apustu egin dute saio horien alde. Umorezkoek funtzionatzen dute ondoen (*Los Serrano, Aquí no hay quien viva...*), baina dramatikoen eta intrigazkoen ere bai (*Policías, Un paso adelante...*), eta, azken asteotan, *Motivos personales*, Tele5ek orain dela hiru bat aste estreinatu duen intrigazko telesaioa eta audientzia maila handiak lortzen diharduena.

Horrelako telesaialak superproduktzio amerikarretan ikusi izan ditugu eta ez da oso ohikoa Europan ekoiztea. Horregatik, esan genezake nahiko berritzailea dela, suspensez eta intrigaz josia. Gustura jarraitzen da eta harrapatu egiten zaitu. Baina izen handiko telesaioetako topikorik tipikoenak ere baditu: familia arteko lehiak, pertsonaia gaiztoak -jeneralean emakumezkoak-, diktadoreak -jeneralean gizonezkoak-... Tira, negu hotzetan, afalostean, sofa gainean etzan eta denbora-pasarako egokia..., loari eustea lortuz gero.



Añai erretegia

Eskaintza **Nardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01

- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak

- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

Eskaintza **Galartza auzoa / ARETXABALETA**
943 79 24 58

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BIM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

Eskaintza **Arane Erreka 30 / BERGARA**
943 76 97 01

- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Berezitasunak

- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Unzueta jatetxea

Eskaintza **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Eskaintza **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita



Zuhaitzi jatetxea

Espoloia 6 / BERGARA
943 76 59 22

Eskaintza

- Eguneko menua, aste barruan
- Pizzak, konbinatuak eta karta egubakoitz eta zapatu gauetan

Berezitasunak

- Etxeko postreak

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Amaia Muguruza/ Athletic-zalea

Athleticekin Vienaraino? Egia esan, partidua aitzakia izan zen.

Vienara joateko gogoz geunden, eta pentsatu genuen joatea Athleticen partidua zuen egunetan.

Zenbat lagun joan zineten elkarrekin?

Hiru: Koro koinata, Kristi laguna eta hirurok.

Sarrera erosita joan zineten, ezta?

Bai, bai. Martitzenetik egubakoitzera bitartean izan ginen Vienan eta eguaztenean partidua ikusteko planak egin genituen. Beste biak Real-zaleak dira,

baina hirurok erosi genituen Athletic ikusteko sarrerak.

A ze desilusioa, gero!

Futbol zelaira iritsi arte ez ginen enteratu partidua bertan behera gelditu zela. Egunean bertan etxera deitu genuen eta esan ziguten irratia esan eta esan ari zela akaso partidua ez zela jokatu. Vienan, baina, inork ez zuen uste partidua bertan behera geratuko zenik.

Nola jakin zineten?

Tranbian gindoazen futbol zelairantz, Athleticen bufundak jantzita, eta gizon batek "susten, suspen" esan zigun. Ez genion sinetsi,

txantxetan esaten zigula pentsatu genuen. Futbol zelaira heltzean, kanpoan zeuden Athletic-zale batzuek esan ziguten egia zela.

Zer egin zenuten gero?

Prater futbol zelaira sartzen saiatu ginen, baina ordurako ateak itxita zeuden. Batzuek lortu zuten barrura sartzea, baina guk ez.

Zer moduzko giroa zegoen Vienako kaleetan?

Sekulakoa. Hegazkinean bertan ere Athleticen kamisetak jantzita zituzten gehienek, eta hegaldi zuri-gorria izan genuen.

Ostatu hartu genuen hotelean Berangoko zale batzuk zeuden, txaranga, dantzari, zanpantzar eta guzti. Furgoneta batean joan ziren haiek, musika instrumentu eta guzti.

Politik da Viena?

Bai, oso polita.

Bazter guztiak elurtuta zeuden.

Hurrengoan udabe-

rrian joango gara; lorategi ikaragarri politikak daude, eta landareak lorean daude la ikusi nahi ditugu. Elurraz ere polita da, baina udaberriaren ederragoa izango da.

Operan egon zineten?

Filarmonikaren jauregi-ra joan ginen, baina ez zuten sartzen uzten. Museo batean izan ginen, baina ez genuen astirik izan operara joateko.

Sissi enperadorearen jauregia ikusi genuen.

Ona da Vienako kafea?

Bai, eta kafea zerbitzatzuten duten kafetegiak oso atseginak dira. Izugarri handiak dira, baina oso toki trankilak eta erosok. Kafea ondoan duela irakurtzen egoten da jende asko.

Zer moduzko dendak daude?

Ederrak. Kale politikak eta biziak ditu, eta dendak ikusten ere ibili ginen, bai.

Bueltatu dizuete partiduko sarreren dirua?

Bai, kobratu ditugu.

"Hegaldi 'zuri-gorria' egin genuen, eta Vienako kaleetan sekulako giroa zegoen"

"Etxera deitu genuen eta esan ziguten akaso ez zutela partidua jokatu; Vienan, ordea, inork ez zuen hori uste"

"Ez ginen operan egon, baina Sissi enperadorearen jauregia ikusi genuen"

► Aretxabaleta / 53 urte / Vienara joan zen

PIPERRAUTSA

Utzikeria

Tranbiaren erakusketa zabaldu dute lehen faseko hiru herrietan, ondorioak ezagutu eta alegazioak egiteko. Eta formalidade oso zabaldu ere, Amman sailburua ibili baita batera eta bestera. Formalidadea bai, baina ganora eskasa egon da izenburua jartzerakoan: 'Deba Garaiko tranbia'.

Laster etorriko dira sei urte hasi ginela bileretan gaurko Goiena sortzeko. Eta berehala erabaki behar izan genuen izena. Erabili genituenen artean, bat zen Garaia, hain zuzen Deba Garaia zelako ibarraren izena. Baina orduan mahaikide batek iragarri zuen Euskaltzaindia ari zela berrikusten ibarren deiturak, eta aldaketa zetorrela.

Irizpide gisa adostuta zegoela ibar osorako 'arroa' atzizkia, eta zatientzat 'goiena' eta 'barrena'. Beraz, aurrerantzean izango zirela Debarroa, Debarrena eta Debagoiena.

Gauzak horrela, zalantzarik gabe hautatu genuen zuntasuna, eta izentzat hartu Goiena. Gainera, pentsatu genuen gure egitasmoa oso egokia zela izen aldaketa bultzatzeko, hedabideak zirela medio. Eta hala izan da, Debagoiena txertatua dago egungo paisaian.

Eskualdeko ospitalea salbu, eta orain tranbiaren erakusketa. Arrasate edo Mondragon aukeratu egin daiteke. Deba Garaia ez dago aukeran, izen ofiziala Debagoiena da. Erakusketa prestatu duenak jakin behar zuen hori. Ez jakitea, edo jakinda ez kontuan hartzea da, besterik gabe, utzikeria.

MIKEL IRIZAR

Kalitatezko
Janari eta Sagardoa !!
Ohitura arte bihurtzen dugu
Iparragirre Sagardotegian

Osiñaga auzoa/Hernani 943 55 03 28
 Eguaztenetik zapatura gabe zabalik, zapatu eguerdtan ere bai